



## DECT 7109 WEB

DECT 7109 WEB erabiltzailearen eskuliburua  
Erabilpen-gida

## Aurkibidea

<b>1. Kontrolen kokapena</b>	<b><u>9</u></b>
<b>2. Konbentzioak eta ikurrak</b>	<b><u>13</u></b>
<b>3. Hartu beharreko neurriak</b>	<b><u>14</u></b>
<b>4. Telefonoaren edukia</b>	<b><u>16</u></b>
<b>5. Mantentze-lanak</b>	<b><u>17</u></b>
o Garbiketa	
o Eramangarria eta oinarria	
o Kargatzeko kontaktuak eta konektoreak	
<b>6. Konfigurazioa</b>	<b><u>18</u></b>
o Oinarria instalatzea	
o Oinarria non instalatu	
o Konexioak	
o Bateriak instalatzea	
o Bateriak kargatzea	
o Eramangarria piztea eta itzaltzea	
o Pantaila	
o Ikono nagusien esanahia	

## Aurkibidea

### **7. Erradiazio Baxuko Terminal Ekologikoa** 24

- o %95 baino gehiago murrizten du erradiazioa

### **8. Oinarrizko funtzioak** 25

- o Itxaroteko modua
- o Deiak egitea
  - o Ohiko modua
  - o Modu aurreratua
- o Deiak jasotzea
  - o Deia zain
  - o Deia atxiki
- o Audio-bolumena doitzea
- o Deia isilaraztea (Mute)
- o Telefonoa esku libreko moduan erabiltzea
  - o Bozgorailua esku libreko moduan erabiltzea
  - o Konektorea esku libreko moduan erabiltzea
- o Erregistratzaileari berriro deitzea, R tekla
- o Bateria berrikustea
  - o Bateria-mailaren adierazleak
  - o Bateriaren mantentze-lana
  - o Baterietarako abisuak
- o Estaldurarik ezaren adierazlea
- o Teklatua blokeatzea
- o Oinarria bilatzea
- o Barruko deia
- o Eramangarrien artean deiak transferitzea

## Aurkibidea

### 9. Zerrendak

34

- o Markatutako azken zenbakien zerrenda
  - o Markatutako zenbakien zerrendako zenbaki bat bilatzea eta markatzea
  - o Markatutako zenbakien zerrendaren aukerak
- o Jasotako deien zerrenda
  - o Jasotako deien zerrendako zenbaki bat bilatzea eta markatzea
  - o Jasotako deien zerrendaren aukerak
  - o Dei galduak
- o Agenda
  - o Menuaren bidez zenbaki bat gordetzea
  - o Laster-teklaren bidez zenbaki bat gordetzea
  - o Izen bat sartzea
  - o Zuriune bat sartzea
  - o Zerbaiten arabera bilatzea
    - o Alfabetoaren arabera bilatzea
    - o Agenda berrikustean bilatzea
  - o Erregistro bat editatzea edo ezabatzea
- o SIM txartela irakurtzea

### 10. Menuetara sartzea

47

- o Bilaketa eginez
- o Laster-teklen bidez
- o Menuetara sartzeko aukerak
- o Menuetako funtzioen zerrenda

## Aurkibidea

### **11. Mezuak - Testu-mezu laburren zerbitzua** 50

- o Zerbitzariaren zenbakia konfiguratzea
- o Terminalaren zenbakia konfiguratzea
- o Pasahitza konfiguratzea
  - o Pasahitza konfiguratzeko
  - o Pasahitza ezabatzeko
- o Mezu Laburren Zerbitzua aktibatzea
- o Mezu bat idaztea eta bidaltzea
- o Mezu bat transmititzea
- o Jasotako mezuak ikustea
- o Bidalitako eta bidali gabeko mezuak berrikustea
- o Mezu guztiak ezabatzea

### **12. Soinua** 59

- o Bolumenak doitzea
- o Melodiak doitzea

### **13. Pantaila** 61

- o Eramangarriaren izena
- o Tapiza
- o Kontrastea
- o Orduaren formatua eta erlojuaren neurria

## 14. Konfigurazioa

64

- o Hizkuntza
- o Data eta ordua
- o Energia aurrezteko modua
  - o Pantaila modua
  - o Modu ekologikoa
- o Aurrezenbakiak
  - o Aurrezenbakiak gordetzea
  - o Aurrezenbakiak eskuz markatzea
  - o Agendatik aurrezenbakiekin markatzea
- o Murrizketak
- o Gaueko modua
- o R tekla
- o Markatzea
- o Sarbide-kodea

## 15. Konfigurazio aurreratua

75

- o Infragorri bidezko urruneko kontrola
- o Egutegia
  - o Gertaera bat gehitzea
  - o Gertaera bat ezabatzea
  - o Gertaera bat editatzea
- o Alarma
  - o Aktibatzea edo desaktibatzea
- o Ordu-eremua
- o Kalkulagailua
- o Walkie-Talkie modua
  - o Aktibatu walkie-talkie modua
  - o Desaktibatu walkie-talkie modua

## Aurkibidea

- o Markaketa turboa
  - o 0-9 teklei markaketa turborako zenbakiak esleitzea
  - o Turbo Markaketako zenbakiak editatzea edo ezabatzea
- o Fuzzy markaketa
  - o Fuzzy markaketa aktibatzea/desaktibatzea
  - o Fuzzy markaketaren bidez dei bat egitea
- o Markatutako zenbakietara deitzeko modua
  - o Markatutako zenbakietara deitzeko modua aktibatzea/desaktibatzea
  - o Markatutako zenbakien zerrendaren bidez deitzea.

## 16. Sistema

86

- o Eramangarriaren eta oinarriaren PIN kodea aldatzea
- o Eramangarria edo oinarria berrabiaraztea
- o Oinarria hautatzea
- o Eramangarri bat erregistratzea edo alta ematea
- o Eramangarri bati baja ematea

## Aurkibidea

<b>17. Infragorrien bidezko urrutiko agintea (IR)</b>	<b><u>90</u></b>
<ul style="list-style-type: none"><li>o Kode infragorriak (IG) programatzea<ul style="list-style-type: none"><li>o Kode normalizatua sartzea (TBrako bakarrik)</li><li>o Kodea eskuz bilatzea (TBrako bakarrik)</li><li>o Kodeak transmititzea (edozein ekipotarako)</li></ul></li><li>o Kodeak ezabatu<ul style="list-style-type: none"><li>o Profil bat ezabatzea</li><li>o Profil guztiak ezabatzea</li></ul></li><li>o Urruneko agintearen funtzioak erabiltzea</li><li>o Eramangarri bat erregistratzea edo alta ematea</li><li>o Infragorri bidezko urruneko aginterako telebista-kode normalizatuak</li></ul>	
<b>18. Datu teknikoak</b>	<b><u>99</u></b>
<b>19. Ohiko galderak</b>	<b><u>100</u></b>



## 1. Kontrolen kokapena

### Eramangarriaren aurrealdea

- [1] **Entzungailua:** Beste pertsonaren ahotsa entzungo duzu entzungailuaren bidez.
- [2] **Teklatua:** Aukera ematen du hainbat funtzio kontrolatzeko, zenbakiak markatzeko, etab.
- [3] **Mikrofonoa:** Zure ahotsa jasotzen du posizio horretan dagoen mikrofonoak.
- [4] **Pantaila:** Informazioa erakusten dizu, eta hainbat funtzio azaltzen dizu.
- [5] **IR leihoa:** Leihoaren bidez urruneko aginterako infragorriak bidaltzen dira.


### Eramangarriaren atzealdea

- [6] **Entzungailuaren konektorea:** Esku libreko entzungailua konektatzeko aukera ematen du.
- [7] **Kargatzeko kontaktuak:** Bateriak oinarriaren kontaktu hauetatik kargatzen dira.
- [8] **Baterien konpartimentuaren tapa:** Baterien konpartimentuan sartzeko aukera ematen du.
- [9] **Bozgorailua:** Esku libreko funtzioa aktibatuta dagoenean, bozgorailu horretatik entzungo diozu beste pertsonari. Txirrinerako ere balio du.

### Oinarriaren goialdea

- [10] **Kargaren adierazlea:** Kolore berdeko argi adierazle hau piztu egingo da, bateriak kargatzen ari direnean.
- [11] **Eramangarriarentzako ahokalekua:** Eramangarria ahokaleku honetan sartuta, bateria automatikoki kargatzen hasiko da.
- [12] **Antena:** Estaldura areagotzeko.

### Oinarriaren behealdea


- [13] **Eramangarria bilatzeko tekla** : Kolore berdeko argi adierazle hau piztu egingo da, bateriak kargatzen ari direnean.
- [14] **Segurtasun-irtengunea:** SIM txartelaren erretilua ateratzeko aukera ematen du.

## Oinarriaren atzealdea

[15] Korrontearen konektorea: Egokigailua konektatzeko.

[16] Linearen konektorea: Linearen kablea konektatzeko.

## Funtzio-teklak



[17] Lasterbide-teklak: Tekla horien funtzioa pantailan agertzen den testuaren araberakoa da.

[18] Nabigazio-teklak:

▼ behera

- Itzaroteko moduan, agenda berrikusteko.
- Menuaren moduan, menuaren aukerak berrikusteko.
- Deiak iraun bitartean, bolumena jaisteko.
- Testua editatzeko, mugitu kurtsorea beherantz.

### ^ gora

- Itxaroteko moduan, agenda berrikusteko.
- Menuaren moduan, menuaren aukerak berrikusteko.
- Dei batean, bolumena igotzeko.
- Testua editatzeko, mugitu kurtsorea gorantz.




### < ezkerrera


- Itxaroteko moduan, aktibatu barne-komunikazioa.
- Menuaren moduan (menu nagusian eta lehen mailako azpimenuetan bakarrik) hurrengo menu nagusira mugitzen da.
- Testua editatzeko, mugitu kurtsorea ezkerrerantz.

### > eskuinera

- Itxaroteko moduan, aktibatu aurrezenbakien funtzioa.
- Menuaren moduan (menu nagusian eta lehen mailako azpimenuetan bakarrik) hurrengo menu nagusira mugitzen da.
- Testua editatzeko, mugitu kurtsorea eskuinerantz.

[19]  , tekla honek hainbat funtzio ditu.

- Eramangarria itzalita dagoenean, gainean presioa eginda, telefonoa pizten da ()
- Itxaroteko moduan, () luze sakatuz gero, itzali egingo da eramangarria.
- Dei batean () labur sakatuta, deia amaituko da.
- Menuaren moduan, labur sakatuta, urrats bat atzera egiten da menuan.
- Datu bat sartuz gero (adibidez, mezu labur bat idaztean), sarrera ezeztatu eta itxaroteko modura itzultzen da.

 Arrazoi grafikoak direla eta, aurrerantzean  ikurra izango du tekla honek eskuliburu honetan.

[20] **Markaketa-teklatura:** Zenbakiak, letrak eta zenbait karaktere berezi idazteko balio du.

[21] **Urruneko agintea:** Itxaroteko moduan, aktibatu urruneko agintea infragorri bidez kontrolatzen diren aplikazioetarako.

[22]  , tekla honek hainbat funtzio ditu.

-Tekla hau sakatuz gero, deia egin edo erantzun egiten du.

-Hitz egin bitartean sakatuz gero, bozgorailua aktibatzen da, esku libreko moduan aritzeko.

 Arrazoi grafikoak direla eta, aurrerantzean  ikurra izango du tekla honek eskuliburu honetan.


[23] SMS

-Itxaroteko moduan, berehala **MENSAJES** menura joateko aukera ematen du.

-Menuaren moduan, nabarmendutako aukera baieztatzeko aukera ematen du (**OK** tekla sakatuz efektu bera lortzen da).

## 2. Konbentzioak eta ikurrak

! Ikur honek "Ohar" bat adierazten du. Oharrak abisu bereziak dira; arretaz irakurri eta bete behar dituzu, zure ekipoa hondatu ez dadin eta zuretzako edo beste batzuentzako arriskuak saihesteko.

 Ikur honek ohar bat adierazten du. Ohar batek informazio gehigarria ematen du testu nagusia osatzeko, eta, beraz, produktua erabili eta ulertzeko.

 Arrazoi grafikoak direla eta,  eta  teklek, aurrerantzean  eta , ikurrak izango dituzte, hurrenez hurren.

### 3. Kontuan hartu beharreko neurriak

! Heldu ondo zure telefonoari; hala egin ezean, erori eta hondatu egin daiteke.

! Ez erabili telefonoa uretatik gertu, eta saihestu likidoen zipriztinak. Telefonoan likidoa sartu dela uste baduzu, deskonektatu berehala eta lehortu zapi leun eta lehor batez; ondoren, deitu zure Baimendutako Zerbitzu Teknikoari.

! Ingurumen-baldintzak. Ekipo honen zati guztiak barrualdean erabiltzeko dira. Ez utzi tenperatura hotzegien edo beroegien eraginpean. Ez utzi haririk gabeko telefonoa gehiegizko bibrazioaren, hautsaren edo leku euritsuen eraginpean.

! Ez desmuntatu inoiz, eta ez egin zerorrek mantentze-lanak. Hala eginez gero, bermea baliogabetzeaz gain, kaltea eragin diezaiokezu gailuari, eta, ondorioz, konponketa-lana areagotu. Jarri harremanetan Baimendutako Zerbitzu Teknikoarekin beti.

! Erabili bateriak egokiro, eskuliburuan ohartarazten den moduan.

! Ziurta ezazu bateriak posizio egokian jarrita daudela.

! Ez erabili inoiz telefonoari ez dagokion bateriarik, eta kargatu telefonoarekin batera emandako oinarriarekin bakarrik. Bestelako metodorik erabiliz gero, kalteak eragin ditzakezu, baita talka elektrikoak eta bestelako arriskuak ere. Horrek bermea baliogabetuko du.

! Ez jarri material eroalerik (giltzak, klipak, besokoak...) bateriak kargatzeko kontaktuetatik gertu.

! Ekipo honek ezin du deirik egin (larrialdi-deirik ere ez)korronte elektrikorik ez duenean, bateriak kargatu gabe daudenean (edo hondatuta daudenean), teklatura blokeatuta dagoenean eta eramangarria walkie-talkie moduan erabiltzen denean.

! Telefono-lineak eta sare elektrikoko entxufeak ekipotik gertu eta erraz iristeko moduan egon behar dute, eta beti konektatuak, telefonoak funtziona dezan.

## Birziklatzea

Ez bota telefonoa etxeko zaborrekin batera.

Eskatu informazioa zure herriko udalari, ingurumena ez kaltetzeko telefonoarekin zer egin dezakezun esan diezazuten. Kartoizko kaxa, bilgarriaren plastikoa eta telefonoaren piezak birzikla daitezke, birziklatzeari buruz Espainian indarrean dauden arauen arabera.

Bete itzazu beti birziklatzeari buruz indarrean dauden arauak.

Legeak ezarritako zigorrak eta neurriak bete behar dituzte arauak urratzen dituztenek.



Aparatuak duen edukiontzi ezabatuaren ikurrak esan nahi du ekipoa bilgune batera eraman behar dela bizitza erabilgarriaren amaierara iritsitakoan, eta ez itatu behar hiri-hondakinekin nahasita.

## 4. Telefonoaren edukia

Telefonoari bilgarria kendu ondoren, ziurtatu behean zehazten diren zati guztiak eskura dituzula.

 <p><b>Portátíl</b></p>	 <p><b>Base</b></p>	 <p><b>Adaptador ca/cc</b></p>
 <p><b>Pack de baterías recargables</b></p>	 <p><b>Manual de usuario</b></p>	 <p><b>Cable de línea telefónica</b></p>



## 5. Mantentze-lanak

Zure telefonoak ez du mantentze-lan berezirik behar. Eskuliburu honetan azaldutakoari jarraitu besterik ez duzu, eta babestu gailua hautsetik, tenperatura altuetatik eta bibrazioetatik. Eguzki-argiaren eraginpean ere ez utzi.

### Garbiketa

#### Eramangarria eta oinarria

Eramangarria edo oinarria garbitzeko, mesedez, erabili hautsa kentzeko zapi leun, lehor eta bilorik gabeko bat. Oso zikin baldin badago, zapia apur bat busti dezakezu uretan, kargatzeko kontaktuak eta konektoreak garbitzea saihestuta.

! Ez erabili alkoholik, bentzinarik, aerosolik, produktu urratzailerik edo disolbagarri kimikorik eramangarria edo oinarria garbitzeko.

! Ez erabili zapi hezerik kargatzeko kontaktuetatik edo konektoreetatik gertu.

! Garbitu eramangarria eta oinarria estalkiak itxita daudela.

#### Kargatzeko kontaktuak eta konektoreak

Mesedez, saiatu eramangarriaren eta oinarriaren kargatzeko kontaktuak garbi gordetzen; horien hautsa kentzeko, erabili zapi leun, lehor eta bilorik gabea.

! Ez erabili urik, alkoholik, bentzinarik, aerosolik, produktu urratzailerik edo disolbagarri kimikorik kargatzeko kontaktuak eta konektoreak garbitzeko.

## 6. Konfigurazioa

### Oinarria instalatzea

#### Oinarria non instalatu

Instalatu oinarria hautsik gabeko toki batean, eta ziurtatu hango hezetasun- eta tenperatura-balioak edozein ekipo elektronikorentzako balio normalen barruan daudela. Gainera, oinarria eguzkiaren zuzeneko argitik urrun gorde behar da, eta interferentzia handia sor dezakeen edozein ekipo elektronikotatik (adb.: PCak, aire egokituko sistemak, TB eta abar) metro batera, gutxienez.

Azkenik, ziurtatu korrontearen larakoa eta telefono-linearen hartunea gertu daudela, eta jarri oinarria ahalik eta altuen, irrati-seinalerik onena izateko.

! Ez jarri ezer korrontearen kablearen gainean edo telefono-linearen kablearen gainean, eta ez jarri oinarria kableak zapaldu daitezkeen lekuan.

! Jarri oinarria gainazal sendo eta irmo baten gainean. Leku ezegonkor baten gainean jarriz gero, eramangarria erori eta hondatu egin daiteke. Altzari baliotsu edo delikatu baten gainean jarriz gero, oinarriaren azpian babes egokia jartzeko gomendatzen dizugu.

! Oinarria barrualdean erabiltzeko diseinatu da.

### Konexioak

1. Konektatu egokigailuaren kablearen muturra oinarriaren atzealdeko korronte-hartunera, eta konektatu egokigailua zure etxeko korronte-hartunearen entxufera.

## Korrontearen entxufera



2. Konektatu telefono-linearen kablearen muturretako bat telefono-linearen kablearen sartunera, oinarriaren atzealdean, eta beste muturra telefono-linearen hartunera.


! Oker egindako konexioek kalte larria eragin diezaiokete oinarriari.

! Erabili oinarriarekin batera datorren jatorrizko egokigailua.

## Bateriak instalatzea

! Telefono honek **BATERIAK** erabiltzen ditu, ez pilak. **BATERIAK** berriro karga daitezke, pilak ez.

NiMH bateria-paketea dator telefonoarekin batera. Instalatu bateriak, telefonoa erabili aurretik.



1. Lerratu bateriaren tapa geziaren noranzkoan, eta atera.
2. Bateria ordezkatu nahi baduzu, kendu pakete zaharra.
3. Biratu bateriaren konektorea, konpartimenduko konektorearekin bat egin arte. (Kable gorriak ezkerrean egon behar du, eta beltzak eskuinean.)
4. Sartu bateriaren konektorea kontu handiz.
5. Gorde bateria konpartimenduaren barruan kontu handiz, eta sartu kableak egokiro.
6. Baterien tapa ixteko, lerratu tapa konpartimenduan, ondo ahokatuta gelditu arte.

! Baterien okerreko polaritateak telefonoa hondatu dezake.

! Erabili bateriak behar bezala.

## Bateriak kargatzea

Lehen eragiketari ekin aurretik, bateriak erabat kargatu behar dituzu, 15 orduz. Hasierako kargaren ondoren, elikagailuak sarera eta oinarrira konektatuta egon behar du. Bateriak kargatzeko, jarri eramangarria oinarriaren gainean, irudian agertzen den moduan. Berreste-soinu bat entzungo duzu. Gainera, kargatzen ari den bitartean, piztu egingo da argi adierazle berdea. Aldi berean, bateriaren ikonoa mugitu egingo da eramangarrian. Erabat kargatuta dagoenean, ikonoa beteta agertuko da.



Orduan, baterien kargak 100 orduz iraun beharko luke, eta 15 ordu inguru elkarrizketan, bateria aurrezteko moduan.

Bateriak lehen aldiz kargatzean, utzi eramangarria oinarrian gutxienez 15 orduz; naia egin ezean, bateriaren gaitasuna ez da behar adinakoa izango. Lehen aldiz kargatu ondoren, denbora gutxiagoz kargatu daitezke bateriak, adibidez, gau batean.



Gogoratu elikatzailak beti sare elektrikora eta oinarrira konektatuta egon behar dira, telefonoak funtzionatzeko. Denbora luzean telefonoa erabiliko ez baduzu (adibidez, oporretan), deskonektatu elikagailua eta eramangarriaren bateriak.


Berriro konektatzean, 15 ordu inguru beharko duzu bateriak berriz kargatzeko. Eramangarria guztiz kargatuta, pantailako bateria-adierazleak mugitzeari utziko dio, eta ita agertuko da.

**!** Ingurumena babesteko, bateria berriak jartzen dituzunean, ahaztu gabe erabili bateriak birziklatzeko edukiontzi publikoak.

**!** Kontuz: Bateria desegoki batekin ordeztuz gero, lehertzeko arriskua dago. Jarraibideen arabera bota erabilitako bateriak.

## Eramangarria piztea eta itzaltzea

Eramangarria kargagailuan jartzen duzunean, automatikoki pizten da. Eramangarria pizteko, utzi  tekla sakatuta, pantaila piztu arte. Ongietorriko mezua agertuko da, eta doinu bat entzungo duzu. Eramangarria itzaltzean, utzi  sakatuta segundo batzuetan, pantaila itzali arte.

 Bateriak karga baxua duenean, pantailan ez da ezer bistaratuko. Eramangarria erabili baino lehen, kargatzen jarri behar duzu.

## Pantaila

Pantailak hiru gune ditu:



Ikonoen gunea

Testuen eta grafikoen gunea. Uneko erabilerari n du, hala nola zurekin hitz egiten ari den pertsonaren nenuak, etab. Itxaroteko menuan, oinarriaren zenbakia, rdua erakusten ditu.

Une oro, lasterbide-teklen funtzioa azaltzen du.

**Ikono nagusien esanahia**

### Estaldura-ikonoa

Eramangarria piztuta dagoenean etengabe bistaratzen da. Zenbat eta barra gehiago agertu, orduan eta sendoagoa da seinalea. Ikonoa piztu eta itzali egiten denean, oinarririk seinalerik jasotzen ez dela esan nahi du.

### **Bateriaren ikonoa**

Telefonoa piztuta dagoenean etengabe ageri da, eta bateriaren maila erakusten du. Zenbat eta barra gehiago agertu, orduan eta karga handiagoa izango duzu.

### **Linearen ikonoa**

Keinuka agertzen denean, dei bat sartzen ari dela adierazten du. Piztuta dagoenean, hizketan ari dela adierazten du.

### **Esku libreko ikonoa**

Esku libreko funtzioa aktibatuta dagoela adierazten du. Eramangariaren atzealdeko bozgorailutik datorren ahots bat entzungo duzu.

### **Audio-bolumenaren ikonoa**

Audio-bolumenaren maila adierazten du. Zenbat eta uhin gehiago, orduan eta altuagoa izango da bolumena.

### **Modu isilaren ikonoa**

Elkarrizketa batean, mikrofonoa aldi baterako isilik dagoela (**mute**) adierazten du. Horrela, zurekin hitz egiten ari den pertsonari entzun diezaiokezu. Beste pertsonak, ordea, ezin du entzun zuk esaten duzuna edo zure inguruan gertatzen dena.

### **MEZUEN (SMS)ikonoa**

Mezu berri bat edo gehiago duzula adierazten du ikono honek.

### **Zure ahots-postontzian mezua zain dagoela adierazteko ikonoa**

Ahots-postontzian mezu bat edo gehiago zain dituzula adierazten du ikono honek. Zerbitzu hau sarearen araberakoa da. Jarri harremanetan telefono-konpainiarekin, zerbitzuari buruzko informazio gehiago eskuratzeko.

### **Alarma-ikonoa**

Alarma konfiguratu denean agertzen da ikono hau.

### **Teklatua blokeatuta dago**

Teklatua blokeatuta dagoenean bistaratzen da.

## 7. Erradiazio Baxuko Terminal Ekologikoa

Erradiazioak onartzen dituzten gero eta gailu gehiago erabiltzen ditugu gure etxeetan (mikrouhinak, mugikorrak, haririk gabeko telefonoa, datuetarako WiFi sareak, eta abar). Bakoitzak sortzen duen erradiazio-maila baxua da, edozein arrisku-maila baino baxuagoa, baina denak batera funtzionatzen ari direnean, erradiazio-maila handiegia sortzen dute. Horregatik, SPC Telecom-ek ahaleginak egiten ditu diseinatzen dituen terminalek erosotasun-maila bera izanik, erradiazio gutxi izan dezaten, edo batere erradiaziorik izan ez dezaten. Horiei **TERMINAL EKOLOGIKOAK** deitzen diegu.

%95 baino gehiago murrizten du erradiazioa

### Baimendutako erradiazio-mailak:

Mugikorrak.....	2000 miliwatt
Dect hitz egitean (oinarria + eramangarria) .....	500 miliwatt
Dect hitz egin gabe ere (oinarria).....	250 miliwatt

### Telefono honen erradiazio-mailak:

Dect hitz egitean (oinarria+eramangarria).....	400 miliwatt
Dect hitz egin gabe (terminala oinarrian dagoela).....	0,002 miliwatt

Horrenbestez, terminala oinarrian jarrita dagoelarik, ez da ia erradiaziorik egongo (ohi dena baino 6 milioi aldiz gutxiago)

Telefonoaren ohiko erabileran erradiazioa %95 baino gehiago murrizten dela esan dezakegu.

Modu ekologikoari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus **Modu Ekologikoa**



## 8. Oinarrizko funtzioak

### Itxaroteko modua




Itxaroteko modua da eramangarria pizten duzun bakoitzean agertzen den hasierako pantaila. Telefonoa itxaroteko moduan dagoenean, prest dago deiak jasotzeko, eta oinarriaren zenbakia edo eramangarriaren izena ikusiko duzu, baita uneko data eta ordua ere.


Telefonoa itxaroteko moduan dagoenean, deiak egin edo jasotzeko erabil dezakezu telefonoa, bai eta funtzioen menua erabiltzeko ere. Horretarako, sakatu **MENÚ** laster-tekla. **LISTA** lasterbide-tekla sakatzuz ere sar zaitezke deien zerrendan.


### Deiak egitea

Bi digituko zenbakiak ere markatu ditzakezu. Zenbakia 16 digitu baino gehiagokoa bada, automatikoki karaktere txikiagoak bistaratuko dira, zenbaki osoa ikusi ahal izateko. Zure deiak bi eratara egin ditzakezu.

### Ohiko modua

1. Linea eskuratzeko, sakatu  tekla. Markaketa-doinua entzungo duzu, eta **LLAMAR A** agertuko da pantailaren goialdean; halaber,  ikonoa agertuko da ikonoen gunean.
2. Markatu telefono-zenbakia. Pantailak zenbakia erakutsiko dizu. Deitu diozun pertsonari entzutean, hitz egin ahots-doinu normalaz.
3. Deia amaitzeko, sakatu  tekla edo jarri oinarriaren gainean.





 Markatze automatikoa egiteko, agendako 200 izen eta horietako bakoitzarentzat bi zenbaki biltegitatu ditzakezu memorian.

 Markatu dituzun zenbakietara azkar dei dezakezu.

## Modu aurreratua

Modu hau oso erabilgarria da, zenbakia markatu aurretik berrikusi nahi baduzu eta markatu aurretik zuzenketak egin nahi badituzu:

1. Sartu telefono-zenbakia. Berrikusi zenbakia pantailan.
2. Hutsegiteren bat egin baduzu (adibidez, nahi ez zenuen zenbakia jarri baduzu), aldatu.
3. Zenbakia zuzena denean, sakatu  tekla, markatzeko.

 Zenbakia sartzen ari zarela hutsegitea egin baduzu, sakatu **BORRAR** lasterbide-tekla, azken digitua ezabatzeko eta zenbakia zuzentzeko. Nahi izanez gero, segundo batzuetan sakatu dezakezu, sartutako digitu guztiak ezabatzeko eta itxaroteko modura itzultzeko.

 **EDITAR** lasterbide-teklak aukera ematen dizu markatutako zenbakia gordetzeko edo markaketa-etenak sartzeko.

## Deiak jasotzea


Dei bat jasotzean, telefonoak jo egiten du eta pantailako ikonoa keinuka hasten da. Sartzen den deia identifikatu badaiteke, zenbakia pantailan ikusiko duzu. Deitu diozun pertsonaren zenbakia agendan badago, izena ikusiko duzu, zenbakiaren ordean.

Telefonoak jotzen duenean, aukera izango duzu:

- Deiari erantzuteko, edozein tekla sakatuta. Hitz egin bitartean, pantailan deiaren iraupena bistartzeko.
- Deiari erantzun gabe txirrina ezabatzeko, eskuineko **MUTE** laster-tekla sakatuz.

Deia amaitzeko, sakatu tekla edo jarri eramangarria oinarrian.

 Deia identifikatzeko, deiak identifikatzeko zerbitzuan izena emanda egon behar duzu.

 Dei bat galtzen duzunean, **LLAM. PERDIDA** mezua agertuko da pantailan, dei galduen kopuruaren ondoan (01, 02 etab.). Edozein tekla sakatuta, automatikoki desagertuko da mezu hau.

## Deia zain

 Gogoratu: Ezaugarri hau sarearen araberakoa da.

Telefono honek zain dagoen deiaren identifikazio-zerbitzua erabiltzeko aukera ematen du. Orain, hizketan ari zarela nork deitu dizun jakin ahal izango duzu. Zure lineak deiak identifikatzeko zerbitzua eta zain dagoen deiaren identifikazio-zerbitzua baditu, linea okupatuta dagoela deiren bat jasoz gero, entzungailuan deia zain dagoela adierazten duen tonua entzungo duzu 30 segundoz, eta, gainera, deitzen ari denaren zenbakia ikusiko duzu pantailan.

1. Telefonoz hizketan ari zarela beste dei bat jasotzen baduzu, doinu laburren segida bat entzungo duzu entzungailuan. Deitzen ari den abonatuaren zenbakia agertuko da pantailan.



2. **R** laster-tekla sakatu, eta, ondoren, 2 digitua, lehen deia zain uzteko eta bigarrenari erantzuteko.

3. Sakatu berriro **R** laster-tekla, eta, ondoren, digitua, dei batetik bestera igarotzeko.

 Mesedez, zerbitzuari buruzko xehetasun gehiago izateko, galdetu zure telefono-konpainiari.

## Deia atxikitzea

Hizketan ari zarela, deia atxiki dezakezu, honela:

- Dei bat zain uzteko, sakatu  tekla. Pantailan **RETENIDA** bistaratuko da.
- Deiari erantzuteko, sakatu  tekla berriro. **RETENIDA** desaparece de la pantalla.

 Deia atxiki baino lehen, ohartarazi solaskideari egin behar duzunaz, hark ez baitu entzungo azalpenik linearen bidez.

## Audio-bolumena doitzea

Hizketan ari zarela eta teklekin audio-bolumena eta esku librekoarena doitu dezakezu. 5 maila daude, ikonoaren uhin-kopuruari dagozkionak. Zenbat eta uhin gehiago ikusi, orduan eta altuagoa izango da bolumena.

## Deia isilaraztea (Mute)

Hizketan ari zarela, mikrofonoa isilarazi egin dezakezu aldi baterako, zurekin hitz egiten ari den pertsonak entzun ez diezazun. Zuk, berriz, entzun diezaiokezu hari tarte horretan.

Mikrofonoa isilarazteko funtzioa aktibatzeke, hizketan ari zarela **MUTE** tekla sakatu besterik ez duzu. ikonoa bistaratuko da pantailan. Mikrofonoa isilarazteko funtzioa kentzeko, **MUTE** tekla berriro sakatu besterik ez duzu. ikonoa desagertu egingo da, eta telefonoaren ohiko egoera berrezarriko da.

## Telefonoa esku libreko moduan erabiltzea

### Bozgorailua esku libreko moduan erabiltzea

Hizketan ari zarela, eramangarriaren bozgorailua aktibatu dezakezu. Eramangarria gainazal batean jarrita (idazmahaiari, adibidez), esku libreko elkarrizketan aritu zaitezke. Esku libreko modua aktibatzeke, hitz egin bitartean sakatu tekla. ikonoa bistaratuko da pantailan.

Esku libreko modua desaktibatzeke eta ohiko moduko deira itzultzeke, sakatu tekla berriro. ikonoa desagertu egingo da.


**!** Eramangarria belarritik gertu jarri aurretik, ziurtatu bozgorailuaren funtzioa itzalita dagoela.

Distantzia jakin batera erabil daiteke bozgorailua (zure ingurunearen kondizioen arabera). Ziurtatu beste pertsonari argi entzuten diozula eta hark zuri ere ondo entzuten dizula.

Bozgorailuaren bolumena doitzeko, irakurri 8. atala.

### Esku libreko konektorea erabiltzea

Zure telefonoak badu entzungailuetarako konektorea eramangarrian. Hura eskuratzeko, altxatu eramangariaren albo batean dagoen gomazko babeska. Konektatu entzungailuak (aukeran) eramangariaren albo batean dagoen konektorera (6).

 Esku libreko entzungailua nahi baduzu, jarri harremanetan Telecom eta Novatecno SAK baimendutako zerbitzu tekniko batekin, eta eskatu hari.

### Erregistratzaileari berriro deitzea, R tekla

Tekla honen bidez, zure telefono-konpainiak edo zentralitak eskainitako kontratatutako zerbitzuetara sar zaitezke: "deiak desbideratzea", "deia zain uztea", "erantzungailu-zerbitzua", etab.

Horretarako, telefonoa eseki gabe dagoela, R laster-tekla sakatu behar duzu.

Pantailan, "F" (*Flash*) bistaratuko da, eta irekiera tenporizatua egingo da linean. Konektatuta zauden zentralak seinalizazio horri antzemango dio, eta zain geldituko da. Ondoren, markatu nahi duzun zerbitzuaren kodea.

### Bateria berrikustea

#### Bateria-mailaren adierazleak


Pantailaren goiko aldean etengabe ageri den ikonoa. Bateriaren maila erakusten du: Zenbat eta barra gehiago agertu, orduan eta karga handiagoa izango duzu.

Bateriak baxu daudenean, barra guztiak desagertuko dira, eta alerta-doinua entzungo da.

Telefonoa erabiltzeko bateriak baxuegi daudenean, eramangarria automatikoki itzaliko da, eta hainbat alerta-doinu joko ditu.

Kasu horretan, jarri telefonoa kargatzen, 6.3 atalean adierazten den moduan.

Kargatzean, ikono barruko teklak mugitu egiten dira. Kargatze-prozesuaren amaieran, barra guztiak agertuko dira etengabe.



## Bateriaren mantentze-lanak

Telefonoaren erabilera egokiak baterien bizitza luzatuko du. Horregatik, komeni da bateriek kargatze eta deskargatze-ziklo osoak izatea. Kondizio egokietan, bateriek 100 orduz iraun beharko lukete kargatuta itxaroteko moduan, eta 15 ordu inguru elkarrizketan, bateria aurrezteko moduan. Bateriaren egoera onari eusteko, egin gutxienez hiru kargatze- eta deskargatze-ziklo oso. Kargatze-ziklo osoa: utzi eramangarria oinarriaren gainean 15 ordu inguru. Deskargatze-ziklo osoa: Telefonoa erabiltzeko, atera oinarritik, bateria agortu arte.



Baterien errendimenduak ez badu hobera egiten, aldatu bateriak.



## Baterietarako abisuak

! Zirkuitulaburrik ez egin bateria-terminaletan. Sua, erredurak edo leherketak eragin ditzake.

! Erabili jatorrizko bateriak, eta horiek kargatzeko, oinarria bakarrik erabili. Jatorrizkoak ez diren osagarriak erabiltzeak hondatu egin ditzake bateriak edo unitatea, eta pertsonentzat ere kaltegarria izan daiteke.

## Estaldurarik ezaren adierazlea

 ikonoaren eskuinaldeko barrek etengabe adierazten dute oinarritik jasotzen den seinalearen indarra. Oinarritik urruti bazaude, irrati-seinalea ahula izan daiteke, eta agian telefonoak ez du telefono-linearako sarbiderik. Egoera horretan, ezin duzu deirik egin edo jaso, eta  ikonoa keinuka hasiko da pantailan.

 Hizketan ari zarela eramangarria oinarritik urruti eramaten baduzu, linea deskonektatu egin daiteke, eta, hala gertatuz gero, itxaroteko modura itzuliko da eramangarria. Berrikusi  ikonoa, estalduraren barruan zaudela egiaztatzeko. Ikonoa keinuka ari bada, hurbildu oinarria.

## Teklatua blokeatzea

Funtzio hori oso erabilgarria da telefonoaren funtzioen bat nahi gabe aktibatzen bada. Teklatuaren blokeoa aktibatzen baduzu, teklak blokeatu egiten dira, \* tekla izan ezik.

Deia jasotzen denean, ordea, edozein tekla sakatuta erantzun dezakezu. Deia amaitzean, berriro blokeatzen dira teklak.

**Teklatua blokeatzeko**, itzaroteko moduan, \* tekla sakatu behar da, ikonoa azaldu arte. Egoera horretan, edozein tekla sakatuz gero ( \* ez beste tekla bat), telefonoaren pantailan **BLOQUEADO, PULSAR \* CONTIN**, mezua agertuko da pantailan, teklatua blokeatuta dagoela eta desblokeatzeko \* tekla sakatu behar duzula adierazteko.


**Teklatua desblokeatzeko**, itzaroteko moduan, \* tekla sakatu behar da berriro, ikonoa pantailatik desagertu arte.

Telefonoa itzali eta piztu egiten baduzu, automatikoki desaktibatzen da blokeoa.

## Oinarria bilatzea



Eramangarria oinarritik bilatu dezakezu, txirrin berezi bat joaraziz. Funtzio hau oso erabilgarria da, galdutako eramangarria aurkitzeko edo hura daukan pertsonari deitzeko. Bilaketa-seinalea bidaltzeko, sakatu, labur, oinarriaren behealdeko bilaketa-botoia. Oinarrian erregistratutako eramangarri guztiek 30 segundo inguru joko dute. Bilaketa-seinalea 30 segundo baino lehenago gelditzeko, sakatu berriro bilaketa-tekla edo eramangarriaren edozein tekla.





 Bilaketa egin bitartean deia jasotzen baduzu, eramangarriak geldiarazi egiten du bilaketa-txirrina, eta ohiko moduan jotzen du, deia erantzuteko.

## Barruko deia





Oinarrian eramangarri bat baino gehiago erregistratu baduzu (guztira, erregistra ditzakezu), bi eramangarri erabiliz egin ditzakezu barruko deiak.

1. Sakatu  botoia. Pantailan  ikonoa keinuka agertzen da, baita **LLAMAR A** mezua ere.

2. Sakatu kontaktatu nahi duzun eramangarriaren zenbakia (1etik 4ra).

3. Beste eramangarriak deia erantzun diezaioke,  la sakatuz. Orduan,  ikonoa etengabe agertuko da, bi eramangarriak konektatuta daudela adierazteko. Gainera, deitu diozun eramangarriaren zenbakia ikusiko duzu zure pantailan.




1. Elkarrizketa amaitzean, sakatu  tekla edo  tekla itzaroteko modura itzultzeko.

 Barruko deia egin bitartean, kanpoko dei bat jaso dezakezu. Kasu horretan, bi eramangarriek itzaroteko moduaren doinua entzungo dute. Deia erantzuteko, sakatu tekla  edo  tekla, barruko deia amaitzeko. Segundo batzuetan kanpoko deia entzungo da bi eramangarrietan. Ondoren, sakatu  tekla, erantzuteko.



## Sarrerako deiak kudeatzea

Oinarri berean eramangarri bat baino gehiago erregistratu baduzu, kanpoko dei bat transferitu dezakezu haien artean.

1. Kanpoko dei batekin ari zarenean, sakatu  tekla. Kanpoko deia zain geldituko da, eta **RETENIDA** mezua azalduko da pantailan.
2. Sakatu deitu nahi duzun eramangarriaren zenbakia (1etik 4ra).
3. Erantzuteko, deia jasotzen duen eramangarriak erantzun dezake,  tekla sakatuz, eta zurekin hitz egiten hasi. Sartzen den deiaren berri eman diezaiokezu pertsona horri.
4. Sartzen den deia transferitu nahi duzunean, sakatu zure eramangarriaren  tekla, eta deia transferitua izango da.

## 9. Zerrendak

Itzaroteko moduan, lasterbide- teklekin markatutako azken zenbakiak jasotako deiak eta agenda ikus daitezke.

Markatutako azken zenbakien zerrenda

Markatutako zenbakien zerrendako zenbaki bat bilatzea eta markatzea

1. Itzaroteko moduan, sakatu **LISTA** laster-tekla.
2. Sakatu **1.MARCADOS** eta sakatu **OK**. Pantailan, markatutako azken zenbakiak (irteerako deiak) erakutsiko ditu telefonoak.
3. Bilatu irteerako deien bidez, nabigazio-botoiak erabiliz, nahi duzun zenbakia aurkitu arte, eta sakatu **OK** tekla. Izena ere ikus dezakezu (agendan eskuragarri badago), baita deia egindako data, ordua eta iraupena ere.
4. Sakatu tekla zenbakia markatzeko.
5. Itzaroteko modura itzultzeko, sakatu tekla.

Zerrendan zenbakirik ez dagoenean, **MARCADOS** hitza azalduko da pantailan - **LISTA VACÍA**.



Zenbaki berri bat markatzen duzun bakoitzean, zerrendako zenbakirik zaharrena automatikoki ezabatzen da, eta zerrenda eguneratu egiten da.



Zenbakia aldatzeko aukera daukazu, markatu aurretik. Horretarako, hautatu zenbakia eta sakatu **OK** tekla. Ondoren, sarbide zuzeneko **OPCIÓN** tekla, aukera-zerrenda ikusteko, eta sakatu berriro **OK** tekla **EDITATU** aukeraren gainean.

3 urratsean, zenbaki bat aurrez sartu bada agendan, zenbaki finko bati ( ikonoa) edo mugikor bati ( ikonoa) lotutako izena bistaratuko da.

## Markatutako zenbakien zerrendaren aukerak

Hauek dira markatutako zenbakien zerrendaren aukerak: editatzea, gordetzea edo ezabatzea.

1. Aurkitu nahi duzun zenbakia deien zerrendan, aurreko paragrafoko 1. urratsetik 3. enera azaltzen den moduan.
  2. Sakatu **OK** tekla. Dei horren xehetasun guztiak erakutsiko ditu pantailak.
  3. Sakatu **OPCIÓN** laster-tekla, aukeren menua erakusteko.
  4. Sakatu  nabigazio-tekla nahi duzun aukera hautatzeko, eta, gero, sakatu **OK** tekla:
    - a. **Editar**: zenbakia editatzeko aukera ematen du. Erabili **BORRAR** laster-tekla, zenbakiaren azken digitua ezabatzeko. Zenbakia **EDITAR** ere egin dezakezu. Zenbakia agendan gordetzeko, **GUARDAR NUM** edo **INSERT PAUSA** aukerak dituzu.
    - b. **Guardar el número**: zenbakia aurkibidean gorde dezakezu. Osatu zenbakiaren biltegitratzea, agendan azaltzen den moduan.
    - c. **Borrar**: aukeratutako zenbakia ezabatzeko aukera ematen du.
    - d. **Borrar todo**: markatutako zenbakien zerrenda osoa ezabatzeko aukera ematen du.
- Telefonoak berresteko eskatuko dizu.
5. Itzaroteko modura itzultzeko, sakatu  tekla.





 **BORRAR** edo **BORRAR TODO** aukera hautatuz gero. Telefonoak aurrez berresteko eskatuko dizu, **CONFIRMAR?** mezua erakutsiz. Berresteko, sakatu  **OK** laster-tekla, eta, ateratzeko, sakatu eskuineko **CANCEL** eskuineko lasterbide-tekla.

## Jasotako deien zerrenda

Zure lineak Deiak Identifikatzeko Zerbitzua edo Deiak Zain Zerbitzua badu, dei bat jasotzen duzunean deitzen dizun abonatuaren telefono-zenbakia agertuko da pantailan. Jasotako deiari erantzun ez badiozu edo dei galdua bada, **LLAMADA DE** mezua agertuko da pantailan, eta, horren ondoan, deiei dagokien zenbaki bat (01, 02 etab.). Mezu hau automatikoki desagertuko da, teklaren bat sakatzen duzunean.

Jasotako azken 30 deiak (edo dei galduak) jasotako deien zerrendan gordetzen dira, eta zenbaki horiei deitzeko, ezabatzeko edo agendan gordetzeko aukera duzu. Zenbakiak ikusteko, jasotako deien zerrendara jo dezakezu.

## Jasotako deien zerrendako zenbaki bat bilatzea eta markatzea

1. Itxaroteko moduan, sakatu **LISTA** laster-tekla.
2. Sakatu  nabigazio-teklak, 2.**RECIBIDAS** hautatu arte. Orduan, sakatu **OK** lasterbide-tekla. Sartzen diren deien zerrenda agertuko da pantailan. Zenbakia aurrez agendan sartuta badago, horri lotutako izena ere ikus dezakezu.
3.  nabigazio-teklak erabiliz, bilatu sartzen diren deien artean nahi duzun zenbakia, eta sakatu **OK** lasterbide-tekla. Deia jaso zenuen data, ordua eta iraupena ikus ditzakezu.
4. Zenbaki horretara deitzeko, sakatu  tekla (edo sakatu **ATRÁS**, aurreko menura itzultzeko).
5. Itxaroteko modura itzultzeko, sakatu  tekla.

2. urratsean, zerrenda hutsik badago, **RECIBIDAS LISTA VACÍA** bistaratuko da pantailan, eta telefona itzaroteko modura itzuliko da.

3. urratsean, deien zerrendako elementu bakoitzak ikonoa izango du deia benetan jaso bada, eta ikonoa izango du, deia galdu bada (erantzun gabe edo erantzuteko aukera izan aurretik amaitu bada).

Telefono-zenbakia aurrez agendan sartuta badago, ikonoa aurkituko duzu zenbaki finkoaren eskuinaldean, edo ikonoa, mugikorra bada.

### Jasotako deien zerrendaren aukerak

Hauk dira jasotako deien zerrendaren aukerak: editatzea, gordetzea edo ezabatzea.

1. Aurkitu nahi duzun zenbakia deien zerrendan, aurreko paragrafoko 1. urratsetik 3.enera azaltzen den moduan.

2. Sakatu **OK** tekla. Jasotako deiaren xehetasun guztiak erakutsiko ditu pantailak.

3. Sakatu **OPCIÓN** laster-tekla, aukeren menua erakusteko.

4. Sakatu nabigazio-teklak, nahi duzun aukera hautatzeko:

a. **Editar**: zenbakia editatzeko aukera ematen du. Erabili **EZABATU** lasterbide-tekla, zenbakiaren azken digitua ezabatzeko. Zenbakia **EDITATU** ere egin dezakezu. Zenbakia agendan gordetzeko, **GUARDAR NUM** edo **INSERT PAUSA** aukerak dituzu.


b. **Guardar el número**: zenbakia aurkibidean gorde dezakezu. Osatu zenbakiaren biltegitratzea, agendan azaltzen den moduan.

c. **Borrar**: aukeratutako zenbakia ezabatzeko aukera ematen du.

d. **Borrar todo**: markatutako zenbakien zerrenda osoa ezabatzeko aukera ematen du.

Telefonoak berresteko eskatuko dizu.

5. Itzaroteko modura itzultzeko, sakatu tekla.

 **BORRAR** edo **BORRAR TODO** aukera hautatuz gero, aurrez berresteko eskatuko dizu telefonoak, **CONFIRMAR?** mezuaren bidez. Berresteko, sakatu **OK** laster-tekla, eta, ateratzeko, sakatu eskuineko **ATRÁS** laster-tekla.


## Dei galduak

Dei galdu bat dagoenean, **Llam. perdida** bistaratzen da pantailan, eta, horren ondoan, dei galduen kopurua (01, 02, etab.). Mezu hau automatikoki desagertuko da, **OK** tekla sakatu bezain laster (zuzenean jasotako/galdutako deien zerrendara eramaten zaitu) edo **CANCEL** (mezuari jaramonik ez egiteko).

 Zerrendan,  ikonoak benetako jasotako deiak adierazten ditu;  ikonoak, berriz, dei galduak adierazten ditu.

## Agenda

Zure haririk gabeko telefonoan dagoen barne-agendarekin, erabili ohi dituzun zenbakiak biltegitatu ditzakezu, erraz markatu ahal izateko; horrela, ez dituzu gogoratu behar eta ez duzu deitzen duzun bakoitzean tekleatzen ibili behar. Horiek erabiliz, gainera, okerreko zenbakia markatzeko arriskua murrizten da. Barne-agenda Erregistro bakoitzean telefono finko baten zenbakia eta mugikor batena biltegitatu daitezke, eta txirrin ezberdina izan dezakete.

 Telefono mugikorra baduzu, zure SIM txartelean biltegitatutako zenbakiak zuzenean DECT telefonoaren agendan koptatu ditzakezu. Horretarako, berrikusi "SIM txartela irakurketa" atala (9.4).

## Menuaren bidez zenbaki bat gordetzea




1. Itxaroteko moduan, sakatu **LISTA** laster-tekla. Orduan, sakatu behin eta berriz nabigazio-teklak, eta hautatu **3.AGENDA**. Sakatu OK tekla, agendaren aukeretan sartzeko.
2. Sakatu tekla, **2.NUEVA ENTRADA** hautatzeko, eta onartu OK teklarekin. Izenaren eremuari ikonoa dagokio.
3. Sartu izena (12 karaktere alfanumeriko, gehienez).
4. Sakatu tekla, ikonoa duen eremu numeriko finkora igarotzeko (etxeko zenbakia) edo ikonoa, mugikorraren zenbakira igarotzeko. Sartu dagozkion telefono-zenbakiak (2 digituraino).
5. Sakatu botoia, sartutako zenbakiaren eskuinaldeko ikonoa nabarmentzeko. Orduan, sakatu edo botoiak, telefono-zenbaki horretarako doinua aukeratzeko. Txirrin bat hautatzen duzunean, telefonoak horrekin joko du.
6. Sakatu OK laster-botoia, konfigurazioa gordetzeko.
7. Itxaroteko modura itzultzeko, sakatu botoia.


Izena edo zenbakia oker sartzen badituzu, erabili **BORRAR** laster-botoia, sartutako azken karakterea ezabatzeko.

edo botoiak ere erabil ditzakezu, karaktere batetik bestera joateko eta okerrekoa aurkitzeko; orduan, sakatu **BORRAR** lasterbide-tekla, eta ezabatu.

## Lasterbide-teklaren bidez zenbaki bat gordetzea

Zenbaki bat markatu ondoren, menu nagusian sartu gabe biltegiratu dezakezu.

1. Itxaroteko moduan, sartu telefono-zenbakia eta, ondoren, sakatu **EDITAR** laster-tekla.
2. Hautatu 1.**GUARDAR NUM** eta sakatu berriro **OK** lasterbide-tekla.
3. Orduan, etxeko telefono-zenbakia  edo mugikorraren zenbakia  aukeratu dezakezu. Hautatu nahi duzun aukera, eta sakatu **OK** lasterbide-tekla. Ondoren, hautatutako ikonoan sartutako zenbakia ikusiko duzu.
4. Eman aurreko ataleko urrats berberak erregistro berriko gainerako eremuetan ere.
5. Sakatu **OK** laster-botoia, konfigurazioa gordetzeko.
6. Itxaroteko modura itzultzeko, sakatu  botoia.

 Zenbakia 1. urratsean sartzten duzun bitartean, zuriune bat edo gehiago sar dezakezu.

## Izen bat sartzea

1. Izenaren eremuan karaktere alfanumerikoa sartu nahi duzunean, sakatu sartu nahi duzun karaktereari dagokion tekla behin edo gehiagotan, taula honen arabera: lehen karaktererako pulstsazio bat, bigarren karaktererako bi pulstsazio, eta abar.
2. Hautatu beste letra bat, modu berean, arau hauek kontuan hartuta:  
Beste tekla bat sakatzen duzunean, kurtsorea hurrengo lekura aldatzen da.  
Letra bera bi aldiz edo botoi bereko letra ezberdina sartzten bada, une batez itxaron behar duzu, kurtsorea automatikoki hurrengo lekura aldatu arte.
3. Beharrezkoa bada, honela editatu dezakezu testua.



4. edo botoiekin, aldatu posizioa eskuinera edo ezkerreara.
- Letrak ezabatzeko, erabili **BORRAR** lasterbide-tekla.
  - Letra larria edo xehea aldatzeko, sakatu # tekla.

Adibidez: "Rosa" hitza sartzeko, sakatu:

7 tekla hiru aldiz ("R"). Lehen karakterea letra larria izateko dago konfiguratuta.  
# tekla behin (letra larrietatik xehetara aldatzea).

- 6 tekla hiru aldiz ("o").
- 7 tekla lau aldiz ("s").
- 2 tekla behin ("a").

Tecla	Caracteres en el orden mostrado														
0	0	.	,	:	;	'	"	/	=	-	+	(	)	<	>
1	espacio	1	!	?	&	@	_	£	\$	€	¥	§	*	#	
2	A	B	C	a	b	c	2	Z	À	Æ	Ç	à	ä	á	æ
3	D	E	F	d	e	f	3	É	Δ	Φ	È	é			
4	G	H	I	g	h	i	4	ø	ψ	ì					
5	J	K	L	j	k	l	5	^	Γ	í	¿	%			
6	M	N	O	m	n	o	6	Ñ	Ö	Ø	ñ	ø	ò	ö	
7	P	Q	R	S	p	q	r	s	7	π	Σ	≡	β		
8	T	U	V	t	u	v	8	Ü	ù	ü					
9	W	X	Y	Z	w	x	y	z	9	Ω					

## Zuriune bat sartzea

Zuriunea erabilgarria da erantzuteko sistema interaktiborako sarbidea duzunean, hala nola bankuetan erabiltzen duten sistema. Zuriuneak 3 segundo inguruko atzerapena eskaintzen du.

Itxaroteko moduan zenbaki bat markatzen duzunean zuriune bat sartu nahi baduzu, mesedez, jarraitu urrats hauei:

1. Sakatu **EDITAR** lasterbide-tekla:
2.  teklaren bidez, hautatu **2.INSERT PAUSA** eta sakatu **OK** laster-tekla. "P" bat agertuko da, zuriunea sartu dela berresteko.







Agendan, zuriuneak dituzten zenbakiak gorde ditzakezu.

## Zerbaiten arabera bilatzea

Agendan biltegitratutako sarrerak bilatu ditzakezu, izenen karaktereen hasierako letra sartuta (bilaketa alfabetikoa). Itxaroteko moduan, agendako zerrenda osoan bila dezakezu, agendaren menuan sartu gabe.

## Alfabetoaren arabera bilatzea

1. Itxaroteko moduan, sakatu **LISTA** laster-tekla, eta sakatu     eta teklak, **AGENDA** hautatzeko. Ondoren, berresteko, sakatu **OK** laster-tekla.
2. Hautatu **1.BUSCAR** eta sakatu berriro **OK** laster-tekla. Teklatu alfanumerikoaren bidez, sartu bilatu beharreko izenaren hasierako letrak. Onartu bilaketa, **OK** laster-tekla sakatuta.
3. Orduan, sartu dituzun karaktereekin hasten diren izenen zerrenda bistaratzen da pantailan. Bilaketaren ondoren haututako erregistroaren zenbakia ere bistaratzen da pantailan.

4. Beharrezkoa bada:

a. Zerrendak erregistro bat baino gehiago erakusten badu, hautatu beste izen bat, edo botoia sakatu.

b. Hautatutako erregistrotik, telefono finkoaren zenbakitik mugikorraren zenbakira eta alderantziz joan zaitezke, nahiz teklak erabiliz edo dagokion ikonoa hautatuz.

5. Nahi duzun zenbakia bistaratzean, sakatu tekla hura markatzeko, edo itzuli itzaroteko modura, tekla sakatuta.

OK laster-tekla sakatuz gero, aukeratutako sarreraren xehetasunak ikus ditzakezu, bai eta funtzioen aukeretan sartu ere.

#### Agenda berrikustean bilatzea

1. Itzarote-egoeran sakatu tekla. Agendako zerrenda osoa bistaratzen da pantailan, ordena alfabetikoan.

2. Sakatu behin eta berriz edo teklak, nahi duzun erregistrora iristeko.

3. Beharrezkoa bada, sakatu edo teklak, hautatutako erregistroko telefono finkoaren edo mugikorraren zenbakiari dagokion ikonoa hautatzeko.

4. Nahi duzun zenbakia aurkitzean, sakatu tekla hura markatzeko, edo itzuli itzaroteko modura, tekla sakatuta.


## Erregistro bat editatzea edo ezabatzea



1. Aurkitu agendan editatu edo ezabatu nahi duzun erregistroa.
2. Erregistroa nabarmentzen denean, sakatu **OK** erregistro horren xehetasunak ikusteko.
3. Sakatu **OPCIÓN** lasterbide-tekla, agendako menuaren aukerak bistaratzeko.
4. Sakatu behin eta berriz nabigatzailearen teklak 1.**EDITAR**, 2.**BORRAR** edo 3.**BORRAR TODO** aukeratzeko, eta sakatu **OK** lasterbide-tekla.
5. Gero, hautatutako aukeraren arabera:
  - a. 1.**EDITAR** hautatu baduzu, erregistroaren edizioa egingo duzu.
  - b. 2.**BORRAR** edo 3.**BORRAR TODO** hautatu baduzu, sarrera ezabatu nahi duzula berresteko eskatuko dizu. Sakatu **OK** laster-botoia berresteko, edo **ATRÁS** erregistroa ezabatu gabe ateratzeko.
6. Itxaroteko modura itzultzeko, sakatu tekla.

## SIM txartela irakurtzea

Funtzio honekin, zure mugikorraren SIM txartelaren edukia DECT telefonoaren agendan kopiatu dezakezu.

1. Segurtasun-arrazoiak direla eta, deskonektatu telefono-linea.
2. Atera oinarriaren eskuinaldean dagoen SIM txartelaren erretilua.









3. Atera SIM txartela zure mugikorretik, eskuliburuko jarraibideak betez.
4. Lerratu SIM txartela kontu handiz oinarriaren SIM erretiluaren barrura, txartelaren moztutako erpinak eta SIM erretilukoak bat egin arte; txartelaren urre-koloreko kontaktuek gora begira egon behar dute. Ziurtatu SIM txartela gidetan lerratzen dela. Sartu SIM txartela oinarriaren konpartimenduan.
5. Itxaroteko moduan, sakatu **LISTA** eta sakatu  behin eta berriz nabigatzailearen teklak, 3.**AGENDA** hautatzeko; agendan sartzeko, berriz, sakatu **OK** lasterbide-tekla.
6. Sakatu behin eta berriz  nabigazio-teklak, 3.**LEER SIM** hautatzeko, eta sakatu **OK** laster-botoia.
7. SIM txartela PIN batekin babestuta badago, PIN SIM mezua agertuko da pantailan, hura sar dezazun. Sartu PINa, eta sakatu berriro **OK** lasterbide-tekla.
8. Egiten ari den kopiaren portzentajea agertuko da. Itxaron erregistroak DECT telefonoaren agendan kopiatu arte.
9. Atera SIM txartela eta ordeztu zure mugikorrean.
10. Sartu berriro SIM txartelaren konpartimentuko tapa oinarrian, eta lerratu poliki oinarriaren barrura, bukaeraraino.
11. Konektatu telefono-linea berriro.

! Erabili SIM txartela kontu handiz, urre-koloreko kontaktuak ukitu gabe, horiek ez zikintzeko eta txartela ez hondatzeko.

! Gorde SIM txartela beti haur txikiengandik urrun.

! Ez ireki inoiz SIM txartelaren konpartimendua, telefono-linea deskonektatu gabe. Ez ukitu txartelaren konpartimenduko zirkuituaren kontaktuak, linea konektatuta dagoenean arriskutsua baita.

! Sartu arretaz zure SIM txartelaren PIN zenbakia. Okerreko zenbakia hainbat aldiz sartuz gero (normalean, hiru aldiz), txartela blokeatu daiteke. Kasu horretan, zure mugikorraren PUK kodea erabili behar duzu (zure telefonia mugikorraren hornitzaileak emandakoa) SIM txartelaren erabilera berrezartzeko.

-  SIM txartela oinarrian jarri arren, horren edukia eramangarriaren memoriara transferitzen da (ez oinarria).
-  SIM txarteleko zenbakiak eramangarrian kopiazen dira, eta hor gordetako sarrerei gehitzen zaie. Sarrerak errepikatu arren, ez dira gainidazten. Gehienez 200 sarrera egin daitezke. Zure agendak 10 sarrera baditu, SIM txartelaren 60 sarrera bakarrik kopiazen dira.
-  Funtzio horrek SIM txartelean biltegitutako zenbakiak bakarrik kopiazen ditu. Ziurtatu kopia nahi dituzun zenbaki guztiak benetan SIM txartelean daudela, eta ez mugikorraren memorian. Ikus zure mugikorrari buruzko erabiltzailearen eskuliburua, erregistroak SIM memoriara kopiatzeko.
-  SIM txartel-mota guztiak ezin dira kopiazen.
-  Transferentzia egiten ari garela memoria betetzen bada, **MEMORIA LLENA** bistaratuko da.
-  SIM txartela ezin bada irakurri, **LEYENDO SIM FALLÓ** bistaratuko da pantailan.

## 10. Menuetara sartzea

Telefono honek menutan eta azpimenutan antolatutako funtzioak eskaintzen dizkizu. Menuetarako bi sarbide-mota daude: bilaketa bidez edo sarbide bizkor bidez.

### Bilaketa eginez

1. Itzaroteko moduan, sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko edukia ikusi eta berrikusteko, nabigazio-teklak erabiliz.
2. Aurkitu nahi duzun menua, eta berretsi hautaketa, **OK** lasterbide-tekla sakatzuz.
3. Hautatu duzun menuko elementuak azpimenuak edo beste aukera batzuk baditu, sakatu behin eta berriz nabigazio-teklak zuk nahi duzuna hautatu arte; orduan, sakatu **OK** lasterbide tekla, azpimenu edo aukera horretan sartzeko.
4. Erabili nabigazio-teklak aukeratu duzun konfigurazioa aurkitzeko, eta sakatu **OK** lasterbide-tekla zure aukera gordetzeko.


### Laster-teklen bidez

Denbora aurreztu dezakezu, menu bati (edo aukera bati) lotutako zenbakia markatuz. Ondoren, menu/aukera bakoitzari lotutako zenbakia bistaratzen da, eta pantailan irakur dezakezu bilaketa-sistemaren bidez eskuratzen duzun lehen aldian.

1. Itzaroteko moduan, sakatu **MENÚ** lasterbide-tekla, menu nagusiko elementuak ikusi ahal izateko.
2. Zenbakizko teklatuarekin, sakatu nahi duzun elementua menuan (adibidez, sakatu 2 tekla **SONIDOS** elementua hautatzeko). Ondoren, hautatutako elementuaren aukerak bistaratuko dituzu pantailan (aurreko adibideari jarraituz, **1. VOLUMEN, 2. TIPO SONIDOS**)
3. Sakatu nahi duzun aukerari lotutako zenbakiaren tekla (adibidez, sakatu **2 TIPO SONIDOS** aukera hautatzeko).
4. Sakatu nabigazio-teklak, nahi duzun doiketa hautatzeko.
5. Sakatu **OK** lasterbide-tekla, konfigurazioa gordetzeko.

## Menuetara sartzeko aukerak

Bi moduetan, bilaketa bidezkoan eta sarbide azkarrekoan, aukera hauek dituzu:

- Menu nagusian sartuta,  teklak sakatuz gero menuetan nabigatu eta edukiak ikus ditzakezu. Aukera hori oso erabilgarria da, nahi gabe beste menu batean sartuz gero.

Aurreko mailara itzultzeko, sakatu **ATRÁS** lasterbide-tekla.

Itxaroteko modura itzultzeko, sakatu  edo sakatu **ATRÁS** tekla segundo batzuetan.

- Hala ere, edozein menutatik, 30 segundotan botoirik sakatzen ez baduzu, pantaila itxaroteko modura itzuliko da automatikoki.

- Nabigatzen duzun bitartean, menu/aukera batean sar zaitezke; horretarako, sakatu OK tekla edo SMS erdiko tekla. Aukera horrek, sarbide azkarrarekin batera, nabarmen areagotuko du nabigazio-abiadura.

- Pantailan zenbaki bat agertzen denean  sakatzen baduzu, telefonoak automatikoki markatuko du.



## Menuetako funtzioen zerrenda

Ondoren, menuaren egitura zerrendatzen da, eta aukera bakoitzari egokitutako zenbakia zehazten da.

### 1. MENSAJES

1. NUEVO
2. ENTRADA
3. SALIDA
4. BORRADOR
5. BORRAR TODO
6. CONFIGURACIÓN

### 2. SONIDOS

1. VOLUMEN
2. TIPO SONIDOS

### 3. PANTALLA

1. NOMBRE PORT
2. TAPIZ
3. CONTRASTE
4. RELOJ DIGITAL

### 4. CONFIGURACIÓN

1. IDIOMA
2. FECHA Y HORA
3. AHORRO ENERGÍA
4. PREFIJOS
5. RESTRICCIÓN
6. MODO NOCHE
7. CONFIGURAR R
8. MARCACIÓN
9. CÓDIGO

### 5. AVANZADO


1. CONT. REMOTO
2. CALENDARIO
3. ALARMA
4. HUSO HORARIO
5. CALCULADORA
6. WALKIE-TALKIE
7. MARCAR TURBO
8. MARCAR FUZZY
9. NÚM. MARCADO


### 6. SISTEMA


1. CAMBIAR PIN
2. RESETEAR
3. SELECC. BASE
4. DAR DE ALTA
5. DAR DE BAJA

## 11. MEZUAK - Mezu Laburren Zerbitzua

Telefono honekin, SMS testu-mezuak bidali (eta jaso) ditzakezu gaitasun hori duten beste mugikor edo telefono finko batzuetara. Oinarrian SMS eramangarri bat baino gehiago alta emanda izanez gero, horietako edozeinetatik eskura daiteke SMS zerbitzua.

 **GARRANTZITSUA! MENSAJES** funtzioa aktibatzeke, SMS Mezu Laburren Zerbitzuan harpidetuta egon behar duzu, eta aktibatuta izan behar duzu zure telefono-linean Deiak Identifikatzeko Zerbitzua.



 **MENSAJES** menuan sartu ahal izateko, eramangarriak estalduraren barruan egon behar du.

 Zure telefonoak SMS teknologiarik berriena du, eta I PROTOKOLOA dauka. Horregatik, zenbaitetan beste teknologia zaharragoa (II PROTOKOLOA) duten telefono finkoetatik bidalitako mezuak ez dira iristen; halakoetan, SMSaren bidaltzaileari mezua ez dela jaso izan adieraziko zaio ohar-mezu baten bidez.

### Mezu Laburren Zerbitzariaren Zenbakia konfiguratzea

Telefono honetatik SMS mezu laburrak bidali ahal izateko, lehenik zerbitzu laburren zentroaren zenbakiak egokiro programatu behar dituzu. Zenbaki horiek zure Telefono Konpainiaren arabekoak dira.

Adibidez, Telefónica de España SAri dagokion I PROTOKOLOaren zenbakia hauxe da: 900 716810. Mezu Laburren Zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko, egokiro programatu behar dituzu mezuak bidaltzeko eta jasotzeko zenbakiak. Horretarako, jarraitu urrats hauek:

1. Sakatu **SMS** tekla, **SMS** menua bistaratzeko. **MENÚ** tekla eta, ondoren, **OK** sakatuta ere sar zaitezke menu horretan.
2. Sakatu   teklak behin eta berriz, **6.CONFIGURACIÓN** hautatzeko.

3. Sakatu teklak eta hautatu **1.ENVIAR**, bidalketa-zenbakia programatzeko; ondoren, sakatu OK tekla.
4. Sartu 900 7168 zenbakia, eta sakatu **OK**, programazioa gordetzeko.
5. Sakatu teklak eta hautatu **2.RECIBIR**, bidalketa-zenbakia programatzeko; ondoren, sakatu OK tekla.
6. Sartu 900 7168 zenbakia, eta sakatu **OK**, programazioa gordetzeko.
7. Itxaroteko modura itzultzeko, sakatu tekla.

## Terminalaren zenbakia konfiguratzea

Oinarri berean eramangarri bat baino gehiago erregistratuta daudenean, terminal-zenbakia (luzapena) konfiguratzea behar da eramangarri bakoitzean. Horrela, mezua bidaltzen duen pertsonak zehaztu egin dezake zer eramangarri jasoko duen mezua. Gainera, mezu laburren bi telefono edo gehiago konektatzen badira telefono-linea berean, sartu zenbait terminal-zenbaki (luzapen), 1 eta 9 artekoak.

Hala, mezu laburren zerbitzari-zentrotik **SMS** bat iristean, terminal-zenbaki zuzena duen telefonoak soilik jasoko du. Terminalaren zenbakia konfiguratzeke:

1. **SMS** laster-botoia sakatu, **MENSAJES** menuko aukerak ikusteko, edo **MENÚ** laster-tekla sakatu, menu nagusira sartzeko. Hautatu **1.MENSAJES**, eta sakatu **OK** laster-tekla.
2. Sakatu behin eta berriz nabigazio-teklak, **6.CONFIGURACIÓN** hautatu arte. Orduan, sakatu **OK** lasterbidea.
3. Sakatu behin eta berriz, **3.TERMINAL** hautatu arte. Orduan, sakatu **OK** lasterbide-tekla.
4. Sartu terminalaren digitua, zenbaki-teklatura erabilita.
5. Sakatu **OK** lasterbide-tekla, konfigurazioa gordetzeko.
6. Irteteko, sakatu botoia.

Terminal-zenbakirik sartzeko ez baduzu, eramangarria automatikoki konfiguratzen da 1 terminal-zenbakiarekin.




 Luzapen-aldaketa egin nahi duzun telefonoan testu-mezuen zerbitzua aktibatua baduzu, lehenik eta behin, desaktibatu zerbitzua, aldaketa egin aurretik.

## Pasahitza konfiguratzea

Baimenik gabeko pertsona bat zure mezuetara sar ez dadin, zure telefonoarekin pasahitz bat konfiguratu dezakezu, **MENSAJES** menura sartu ahal izateko.

Funtzio hori ezin da erabili baldin eta aurretik ez bada terminal-zenbakia konfiguratu, aurreko atalean adierazi bezala.

### Pasahitza konfiguratzeko.

1. **SMS** laster-botoia sakatu, **MENSAJES** menuko aukerak ikusteko, edo **MENÚ** laster-tekla sakatu, menu nagusira sartzeko. Hautatu **1.MENSAJES**, eta sakatu **OK** laster-tekla.
2. Sakatu  behin eta berriz nabigazio-teklak, **6.CONFIGURACIÓN** hautatu arte. Orduan, sakatu **OK** lasterbidea.
3. Sakatu  behin eta berriz, **4.CONTRASEÑA** hautatu arte. Orduan, sakatu **OK** lasterbide-tekla. Pantailan **PIN** agertuko da.
4. Idatzi **MENSAJES** menura sartutako bakoitzean eskatuko den pasahitza, eta sakatu **OK** lasterbidea. **CONFIRME PIN** agertzen da pantailan.
5. Sartu pasahitza beste behin, berresteko, eta sakatu **OK** lasterbidea.
6. Sakatu  botoia, irteteko.

Hemendik aurrera, **MENSAJES** menura sartu nahi duzun bakoitzean, telefonoak pasahitza eskatuko dizu. Pasahitza zuzena ez bada, eramangarria itxaroteko modura itzuliko da.

## Pasahitza ezabatzeko

1. **SMS** laster-botoia sakatu, **MENSAJES** menuko aukerak ikusteko, edo **MENÚ** laster-tekla sakatu, menu nagusira sartzeko. Hautatu **1.MENSAJES**, eta sakatu **OK** laster-tekla.
2. Pantailan **PIN** agertuko da. Sartu pasahitza, eta sakatu **OK**.
3. Sakatu **<>v^** behin eta berriz nabigazio-teklak, **6.CONFIGURACIÓN** hautatu arte. Orduan, sakatu **OK** lasterbidea.
4. Sakatu **<>v^** behin eta berriz, **4.CONTRASEÑA** hautatu arte. Orduan, sakatu **OK** lasterbide-tekla. Pantailan, PINa eta uneko pasahitza bistaratuko dira.
5. Ezabatu pasahitza, **BORRAR** tekla luze sakatuta, eta sakatu **OK** lasterbide-tekla.
6. Pantailan, **CONFIRME PIN** agertuko da. Sakatu **OK** lasterbide-tekla; gero, sakatu irteteko botoia

## Mezu laburren zerbitzua aktibatzea

Telefono honetatik SMS mezu laburrak bidali ahal izateko, lehenik eta behin zure telefonia-konpainiak eskaintzen duen zerbitzuan alta eman behar duzu. Hona hemen, adibide gisa, Telefónica de España SArekin alta emateko bi moduak:

**Modu automatikoa:** automatikoki aktibatuko da, zure telefono-lineatik lehen SMS mezua bidalita. Lehenespenez, zure telefona 1 terminal-zenbakiarekin (luzapena) konfiguraturuta dator.

**Eskuzko modua:** bidali aktibazio-mezu bat, **##ACT##** testua jarrita, telefono-zenbaki honetara: 4545.

Zerbitzua desaktibatu nahi baduzu, **##ACT##** (letra larriz) bidali beharrean, **##DES##** (letra larriz hori ere) bidali behar duzu 4545era.

Mezua behar bezala bidali ez bada, mezularitza-zerbitzuak (900 71 68 10) SMS bat bidaliko dizu, mezua ondo bidali ez dela jakinarazteko.

Gogoan izan bi telefono konekta daitezkeela linea berera, terminal-zenbaki (luzapen) berarekin.

## Mezu bat idaztea eta bidaltzea

Mezu bat sor dezakezu, 160 karaktere alfanumeriko bitartekoa, eta testu-mezu gisa bidali.


1. **SMS** laster-botoia sakatu, **MENSAJES** menuko aukerak ikusteko, edo **MENÚ** laster-tekla sakatu, menu nagusira sartzeko. Hautatu **1.MENSAJES**, eta sakatu **OK** laster-tekla.
2. Orduan, sakatu **1.NUEVO**, eta sakatu **OK** lasterbide-tekla.
3. Teklatu alfanumerikoa erabiliz, idatzi testu-mezua (160 karakterera arte). Amaitutakoan, sakatu **OK** tekla.

Letra larrietatik letra xeheetara aldatzeko eta alderantziz, sakatu **#** tekla, testua idazten ari zarela.

4. Nabigazio-teklak erabiliz, hautatu: **<>v^**

**1.INTROD NUM**: telefono-zenbakia eskuz sartzeko aukera ematen du. **2.BUSCAR NUM**: zerrendetako edo agendako zenbaki bat hautatzeko aukera ematen du.

5. Sakatu **OK** hautatutako eragiketa berresteko. Aurretik **1.INTROD NUM** hautatu baduzu, teklatura erabiliz, sartu mezua bidali nahi diozun pertsonaren telefono-zenbakia. Zuk aurretik **2.BUSCAR NUM** hautatu baduzu, **<>v^** nabigazio-teklak erabiliz, hautatu **1.MARCADOS**, **2.RECIBIDAS** edo **3.AGENDA**, eta sakatu **OK** lasterbide-tekla. Gero, hautatu zerrendako zenbakia, **v** edo **^** tekla erabilita, eta sakatu **OK** tekla.

 Helburuko zenbakiak testu-mezuen zerbitzua duen terminal bat baino gehiago badu eta terminal jakin batera bidali nahi badu, jarri telefono-zenbaki horren amaieran 1etik 9ra arteko digitu bat, zure mezua jasoko duen terminal-zenbakiaren adierazle gisa (luzapena).

6. Orduan, sakatu azkar nabigazio-teklak, idatzi duzun mezuarekin egin nahi duzu eragiketa hautatzeko:

1.**ENVIAR**: mezua berehala bidaltzeko hautatutako helburura.

2.**SOLO GUARDAR**: mezua zirriborroen karpetan gordetzeko, bidali gabe.



7. Sakatu **OK** hautatutako eragiketa berresteko. Beharrezkoa bada, sakatu

 irteteko.





Mezu bat idazten ari zaren bitartean dei bat jasotzen baduzu, dei horri erantzun ondoren, mezua berreskura dezakezu. Gero, beste mezu bat idazten duzunean, bidali gabekoren bat badago, pantailan hau agertuko da: **DESEA EDITAR SU ÚLTIMO MEN? SI** hauta dezakezu mezua idazten amaitzeko eta bidaltzeko. Ezeztatzeko, hautatu **NO** aukera, eta idatzi beste mezu bat.

## Mezu bat transmititzea

Mezua bidaltzean, pantailan hau agertzen da: **MANDANDO MEN**. Gero, bidalketaren emaitzaren arabera, telefonoan **OK!** edo **ERROR!** agertzen da. Mezua ondo bidali bada, pantailan hau agertzen da: **GUARDAR MEN?** Orduan,  eta  teklekin, hautatu **SI** mezua gordetzeko, edo **NO**, gorde nahi ez baduzu. Bidalketak huts egin badu, pantailan aukera hauek agertzen dira:

1.**REENVIAR**: berriro saiatzen da mezua bidaltzen.

2.**GUARDAR MEN**: mezua zirriborroetan gordetzen du.

Erabili  nabigazio-teklak behar duzuna hautatzeko, gero, sakatu **OK** edo irteteko tekla .

## Jasotako mezuak ikustea

Mezu bat jasotzen ari dela, hau agertzen da pantailan: **RECIBIENDO MEN**. Mezua ondo jasotzen bada, pantailan ikonoa agertuko da zuk mezua irakurri arte.

**MENSAJES** menua pasahitz batekin babestuta badago, baimendu gabeko pertsonen mezuak irakurri ez ditzaten, aurrez konfiguratutako pasahitz hori sartu beharko duzu. Sarrerako postontzian gordetzen ditu zure telefonoak jasotako mezuak. 160 karaktereko 20 mezu ere jaso ditzakezu. Sartu **MENSAJES** menuko sarrerako postontzira, jasotako mezuak irakurtzeko eta editatzeko.

Jasotako mezu bat ikusteko:

1. **SMS** laster-botoia sakatu, **MENSAJES** menuko aukerak ikusteko, edo **MENÚ** laster-tekla sakatu, menu nagusira sartzeko. Hautatu **1.MENSAJES**, eta sakatu **OK** laster-tekla.
2. Hautatu **2.ENTRADA** aukera, tekla erabiliz, eta sakatu **OK** tekla. Mezuen zerrenda bistaratuko da. Irakurritako mezuak (berrikusia) ikurrarekin agertzen dira.
3. edo teklen bidez, hautatu irakurri nahi duzun mezua, eta sakatu **OK** tekla. Testu-mezua bidali duen pertsonaren telefono-zenbakia bistaratzen da pantailan, baita mezua jaso den ordua ere.
4. **OPCIÓN** laster-tekla sakatuz gero, aukera hauek dituzu:
  - **RESPONDER**: erantzun egiten du, erantzun-mezua bidaliz
  - **REENVIAR**: jasotako mezua beste pertsona bati bidaltzen dio
  - **LLAMAR**: mezua bidali zuenari deitzeko aukera ematen du
  - **GUARDAR NUM**: mezua bidali zuen pertsonaren telefono-zenbakiari buruzko informazioa gordetzen du.
  - **BORRAR**: hautatutako mezua ezabatzen du
5. Sakatu behin eta berriz edo teklak, aukeretako bat hautatzeko. Sakatu **OK** tekla, aukera hori berresteko. Sakatu , ateratzeko .




 **MENSAJES** aukeran, 2. **ENTRADA** aukerak zenbat mezu berri dituzun azaltzen dizu (01), bai eta, guztira, zenbat mezu jaso dituzun ere (02).

## Bidalitako eta bidali gabeko mezuak berrikustea

Irteerako postontzian, bidalitako azken 20 mezuak biltegitatu daitezke. Ondo bidalitako mezuak dira. Mezuko 160 karaktere bitarte gordetzeko gaitasuna du.



Zirriborroen postontzian, bidali gabe geratu diren mezuak gordetzen dira. Idazten bukatu gabeko edo bidaltzeko orduan akatsen bat izandako mezuak dira. Zirriborroen postontzian, gehienez ere, azkeneko 10 mezuak biltegitara ditzake, eta 160 karaktere arte, mezuko.



Zuk Irteerako edo Zirriborroen postontzietan biltegitatutako edozein mezu berrikus edo birbidal dezakezu.

 Gordetako mezu bat arrakastaz birbidaltzen baduzu, mezu hori ezabatu egingo zaizu zirriborroen postontzitik.

Irteera edo zirriborroen postontziko mezu bat berrikusteko:



1. **SMS** laster-botoia sakatu, **MENSAJES** menuko aukerak ikusteko, edo **MENÚ** laster-tekla sakatu, menu nagusira sartzeko. Hautatu **1.MENSAJES**, eta sakatu **OK** laster-tekla.

2. Sakatu behin eta berriz  edo  nabigazio-botoiak, **3.SALIDA** edo **4.BORRADOR** atera arte. Orduan, sakatu **OK** laster-tekla. Mezuen zerrenda agertuko da pantailan.

3. Hautatu irakurri nahi duzun mezua   teklen bidez, eta sakatu **OK** tekla. Pantailan mezuaren testua, telefono-zenbakia eta mezua bidalitako edo idatzitako ordua atertuko zaizkizu.

4. Aukeretara sartzeko, sakatu **OPCIÓN** laster-tekla. Aukera hauek dituzu eskura Irteerako nahiz Zirriborroen postontzietan:






- **MANDAR MISMO**: mezua dagoen bezalaxe bidaltzeko erabiltzen da.
- **EDITAR MEN**: mezua editatu eta bidaltzeko balio du.
- **LLAMAR**: mezua bidali duenari deitzeko aukera ematen du.
- **GUARDAR NUM**: telefono-zenbakia gordetzen du aurkibidean.
- **BORRAR**: hautatutako mezuak ezabatzeko balio du.

5. Erabili  nabigazio-teklak behar duzuna hautatzeko, gero, sakatu **OK** edo Irten tekla .

 **MENSAJES** menuan, postontzi horretan dagoen mezu-kopurua adierazten dute postontzi bakoitzaren eskuinean dauden zenbakiek..

## Mezu guztiak ezabatzea

Sarrerako, Irteerako eta Zirriborroen postontzietan gordeta dituzun mezu guztiak ezaba ditzakezu. Horretarako:

1. **SMS** laster-botoia sakatu, **MENSAJES** menuko aukerak ikusteko, edo **MENÚ** laster-tekla sakatu, menu nagusira sartzeko. Hautatu **1.MENSAJES**, eta sakatu **OK** laster-tekla.
2. Sakatu  edo  teklak behin eta berriz, eta hautatu **5.BORRAR TODO** aukera. Sakatu **OK** hautatutakoa onartzeko.
3. Sakatu  edo  teklak behin eta berriz, **1.ENTRADA**, **2.SALIDA** edo **3.BORRADOR** hautatzeko. Aukera horietako bakoitzak dagokion postontziko mezuak ezabatuko ditu.
4. **OK** hautatzen duzunean, telefonoak berresteko eskatuko dizu, eta **CONFIRMAR?** mezua agertuko zaizu pantailan.
5. Mezu guztiak ezabatu nahi badituzu, sakatu **OK**. Ez baduzu nahi, sakatu **ATRÁS**.
6. Sakatu  tekla, irteteko.

## 12. SOINUA



Erabili soinu-menua, zure telefonoko soinu nagusiak eta horien bolumena pertsonalizatzeko: tekla-soinua, melodia-mota, txirrinaren bolumena eta kargagailuaren tonua.



### Bolumenak doitzea

Zure telefonoko soinu nagusien bolumena doitu dezakezu. Bost bolumen-maila ditu zure telefonoak, soinu-mota guztietan.

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko osagai nagusiak ikusteko.

2. Sakatu  nabigazio-tekla, eta hautatu **2.SONIDOS**, eta sakatu **OK** laster-tekla.

3. Sakatu   tekla, eta hautatu **1.VOLUMEN**, eta jarraian **OK** tekla, aukera horretara sartzeko.


4. Sakatu   tekla behin eta berriz, eta hautatu doitu nahi duzun soinu-mota:

- Timbre: dei bat jasotzen deneko txirrinaren bolumena.

- Tono de tecla: tekla bat sakatzen den bakoitzeko berrespen-bolumena.

- Cargador: eramangarria oinarriaren gainean uzten den bakoitzeko kargagailuaren tonu-bolumena.

Voz: elkarrizketetan ahotsari emango zaion bolumena.

5. Doitu beharreko soinu-mota hautatu ondoren, sakatu  nabigazio-tekla bolumena zure beharretara doitzeko. Joaldi bakoitzean, bolumen-maila adieraziko du barrak, eta eramangarriak dagokion bolumena erreproduzituko du.

6. Beharrezkoa bada, sakatu   tekla behin eta berriz beste soinu bat hautatzeko.

7. Doitutakoa gordetzeko eta soinuen menura itzultzeko, sakatu **OK** tekla. Baina aldaketarik onartu gabe atera nahi baduzu, sakatu **ATRÁS** tekla.

8. Egonaldi modura itzultzeko, sakatu  tekla.

Txirrinaren bolumena doitzen ari zarela barra guztiak desagerrarazi badituzu, itzali egin duzu. Telefonoak egindakoa gogoraraziko dizu, pantailan **VOLUMEN APAGADO** jarrita. Horretaz gain, dei bat jasotzen duzunean dir-dir egingo du ikonoak.

Ahotsaren maila menutik doitzen ari bazara, eramangarriak ez du audio-maila erreproduzituko, inor ez delako zurekin hizketan ari. Horregatik, hobea da doitze hori norbaitekin hizketan ari zarenean egitea, teklak erabilia.

## Melodiak doitzea

Zure telefonoko soinu nagusien melodia doitu dezakezu.

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko osagai nagusiak ikusteko.

2. Sakatu nabigazio-teklak, eta hautatu **2.SONIDOS**, eta sakatu **OK** laster-tekla.

3. Sakatu teklak, eta hautatu **2.TIPO SONIDOS**, eta jarraian, **OK** tekla, aukera horretara sartzeko.

4. Sakatu teklak behin eta berriz, eta hautatu doitu nahi duzun soinu-mota:

- Timbre: (10 mota) sarrerako dei bat jasotzen duzun bakoitzean entzungo den txirrin-melodia.

- Tono de Tecla: (3 mota) berrespen-melodia da, eta tekla bat sakatzen den bakoitzean entzungo da.

- Cargador: (2 mota) eramangarria oinarriaren gainean uzten den bakoitzean kargagailuak egingo duen tonu-melodia.

5. Doitu beharreko soinu-mota hautatu ondoren, sakatu nabigazio-teklak bolumena zure beharretara doitzeko. Joaldi bakoitzarekin, pantailan uneko maila agertuko da (1. mota, 2. mota eta abar), eta eramangarriak dagokion melodia erreproduzituko du.

6. Beharrezkoa bada, sakatu teklak behin eta berriz, beste soinu-mota bat hautatzeko: txirrina, tekla-soinua edo kargagailua.

7. Doitutakoa gordetzeko eta soinuen menura itzultzeko, sakatu **OK** tekla. Baina aldaketarik onartu gabe atera nahi baduzu, sakatu **ATRÁS** tekla.


8. Egonaldi modura itzultzeko, sakatu tekla.

## 13. PANTAILA


### Eramangarriaren izena

Funtzio horren bidez, telefonoan, itxaroteko moduan dagoenean, pantailan agertzea nahi duzun informazioa defini dezakezu: eramangarriaren zenbakia + oinarriaren zenbakia, edo izena, errazago identifikatzeko. Funtzio hori oso baliagarria da, oinarri batean zenbait eramangarri erregistratuta badituzu. Eramangarriaren izena doitzeko:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko osagai nagusiak ikusteko.

2.  nabigazio-teklen bidez, hautatu **3.PANTALLA**, eta, sakatu **OK** tekla, aukera onartzeko.

3.  teklen bidez, hautatu **1.NOMBRE PORT** aukera, eta sakatu **OK**.

4.  \_\_teklen bidez hautatu hauetakoren bat:  
- **DESACTIVADO**: eramangarriaren izena ez da pantailan azalduko.  
- **ACTIVADO**: pantailan agertuko da eramangarriaren izena.

5. Erabili  tekla eta hautatu **ACTIVADO**, eta, jarraian, sakatu **OK**.

6. Orain, aukera hautakoren bat hautatu behar duzu:

1. Por defecto: izenaren orde, eramangarriaren eta oinarriaren zenbakia azalduko dira pantailan: HS(1), BS(1), normalean.

2. Editar: eramangarriaren izena sartzeko erabiltzen da. Hori aukeratzen baduzu, pantailan **Introd Nombre** azalduko zaizu.





7. **2.Editar** hautatu baduzu, idatzi eramangarriaren izena (gehienez 15 karaktere), teklatu alfanumerikoa erabiliz. Gero, sakatu **OK** laster-tekla. Izena emango zaio eramangarriari, eta pantailan agertuko da emandako izena.



Zenbait tapizek ez dute eramangarriaren izena azaltzen uzten.

## Tapiza

Pantaila hondoaren tapiza hauta dezakezu, telefonoa itxaroteko moduan dagoenerako. Batzuk bizidunak dira!





1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili  nabigazio-tekla, eta hautatu **3.PANTALLA** aukera; gero, sakatu **OK** laster-tekla, egindako aukera onartzeko.
3.  teklak erabilia, hautatu **2.TAPIZ**, eta sakatu **OK**. Pantailan agertuko da hautatuta dugun tapiza.
4. Erabili  \_teklak, tapiz-iruditan gora eta behera ibiltzeko. Sakatu **OK** hautatutakoa onartzeko, edo **ATRÁS**, aukerarik gorde gabe ateratzeko.
5. Sakatu  itxarote-modura itzultzeko.



Zenbait tapizek ez dute eramangarriaren izena eta uneko ordua azaltzen uzten.













## Kontrastea

Pantailan agertzen dena hobeto ikusteko balio du; kontrastea alda daiteke, kontraste-baldintzen arabera.

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili  nabigazio-tekla, eta hautatu **3.PANTALLA** aukera; gero, sakatu **OK** laster-tekla, egindako aukera onartzeko.
3.  teklak erabilia, hautatu **3.CONTRASTE**, eta sakatu **OK**.
4. Erabili  teklak zure inguruaren arabera, kontrasterik egokiena hautatzeko.
5. Sakatu **OK** hautatutakoa onartzeko, edo **ATRÁS**, aukerarik gorde gabe ateratzeko.
6. Sakatu  itxarote-modura itzultzeko.

## Orduaren formatua eta erlojuaren neurria.

Itxaroteko moduan dagoela, pantailan agertzea nahi dugun orduaren formatua eta erlojuaren neurria ere hautatzeko aukera dago.









1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili     nabigazio-teklak, eta hautatu **3.PANTALLA** aukera; gero, sakatu **OK** laster-tekla, egindako aukera onartzeko.
3.   teklak erabilita, hautatu **3.RELOJ DIGITAL**, eta sakatu **OK**.
4. Pantailan dauden aukerak agertuko dira (uneko aukerak  sinboloa izango du):
  - . 1. 24Horas Grande: Erloju digital handia, 12 orduko formatua duena.
  - . 2. 12 Horas Grande: Erloju digital handia, 12 orduko formatua duena.
  - . 3. 24Horas Pequeño: Erloju digital txikia, 12 orduko formatua duena.
  - . 4. 12 Horas Pequeño: Erloju digital txikia, 12 orduko formatua duena.
5. Erabili     teklak nahi duzuna aukeratzeko.
6. Sakatu **OK** hautatutakoa onartzeko, edo **ATRÁS**, aukerarik gorde gabe ateratzeko.
7. Sakatu  itxarote-modura itzultzeko.

## 14. KONFIGURAZIOA

Konfigurazio-menua erabilia, hainbat gauza eta parametro pertsonaliza ditzakezu, eta hala, telefonoa zure gustu eta beharretara egokitu.





### Hizkuntza

Eramangarriaren pantailan testuak azaltzea nahi duzun hizkuntza hauta dezakezu. 5 hizkuntza ditu aukeran telefonoak: gaztelania, euskara, katalana, galegoa eta ingelesa.

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili     nabigazio-teklak **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.
3.   teklen bidez, hautatu **1.IDIOMA**. Uneko hizkuntza  sinboloaren bidez azalduko da markatuta.
4. Sakatu **OK** tekla.
5. Erabili teklak, nahi duzun hizkuntza hautatzeko. Gero, sakatu **OK** hautatutakoa onartzeko, edo **ATRÁS**, aukerarik gorde gabe ateratzeko.
6. Sakatu  itzarote-modura itzultzeko.

### Data eta ordua

Menu horren bidez, itzaroteko moduan, pantailan azaltzen diren data eta ordua egokitzeko aukera duzu.

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili     nabigazio-teklak **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.



3. teklen bidez, hautatu **1.FECHA Y HORA**, eta jarraian, sakatu **OK**. Pantailan **PIN BASE** mezua agertuko zaizu; oinarriaren PINa sartu behar duzu.
4. Sartu dagokion **PINa** (0000 da fabrikatik datorrena), eta sakatu **OK**. Telefonoan uneko konfigurazioa agertuko zaizu. Data goiko lerroan azaltzen da, *eguna/hilabetea/urtea* formatua duela. Ordua azpiko lerroan, *ordua:minutuak* formatua duela.
5. Sartu egungo data, zenbaki-teklatura erabilia. Sakatu sei digitu, eguna, hilabetea eta urtea adierazteko. Esate baterako, 2007ko apirilaren 15a idazteko, sakatu: 150407.
6. Sartu ordua, bi orduko formatuan. Esate baterako 10:15 PM-rako, sakatu: 2215.
7. Sakatu **OK** konfigurazio hori gordetzeko, edo tekla ezer gorde gabe ateratzeko. Orduan, erlojua agertuko da pantailan, itxaroteko modura itzultzean.

Data eta ordua konfiguratzen ari zarela erratu egin bazara, eta digituren bat zuzendu nahi baduzu, erabili teklak kursora gaizki idatzitako zenbakira mugitzeko, eta idatzi beste zenbaki bat.

2000tik 2050era bitarteko urteak soilik idatz daitezke.







Data eta ordua konfiguratzen ari garela elikadura-oinarria deskonektatu edo argia joan, eta eramangarria itzaltzen bada, ezabatu egingo dira, eta berriz idatzi beharko dira.

## Energia aurrezteko modua

### Pantaila modua

Pantaila moduak bateriaren bizia luzatzen uzten dizu, pantailaren eta teklatuaren argiztapena behar bezala kudeatuta. Energia aurrezteko modua aktibatu duzunean, honela funtzionatuko du zure eramangarriak. Teklarik sakatu gabe do itzaltze- edo pizte-eragiketarik egin gabe 30 bat segundo pasatzen badira, edo eramangarria oinarriaren gainean uzten bada, teklaturiko argia itzali egingo da eta pantailarena, berriz, erdira-edo ahuldu. Beste 30 segundo igarotakoan, pantaila erabat ilunduko da. Edozein tekla sakatuta, berriz ere abian jarriko da telefonoa.

Energia aurrezteko moduak bateriaren bizitza luzatzen utziko dizu, eta gehiago iraungo du. Fabrikatik **ACTIVADO** moduan dator doituta. Desgaitu nahi baduzu:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili  nabigazio-teklak **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.
3.  teklak erabilita, aukeratu **3.AHORRO ENERG** eta sakatu **OK** tekla.
4.  teklak erabilita, hautatu **1.MODO PANTALLA**, eta sakatu **OK**.
5.  teklekin hautatu **1.DESACTIVAR** edo **2.ACTIVAR** aukeren artean. Egungo aukeraketa  ikurrak markatuta agertzen da.
6. Sakatu **OK** laster-tekla aukera berria onartzeko, edo **ATRÁS**, ezer gorde gabe irteteko.
7. Sakatu  itzaroteko modura itzultzeko.

Energia aurrezteko modua desaktibatzen baduzu, murriztu egingo da zure telefonoaren elkarrizketa- eta itxarote-moduko autonomia.

### Eko modua

Eramangarria oinarrian jarritakoan, ekipoa erradiazio baxuko modura igarotzen da automatikoki. Informazio gehiagorako, ikus 7. kapitulua.

Oinarrian eramangarri bati baino gehiagori alta emanaz gero, ekipoa ez da ekologikoa izango, eta erradiazio-maila DECT terminal estandar baten berdina izaten da.

Ekipoak Eko modua aktibatua izaten du lehenespenez. Hala eta guztiz, oinarri berean ekipo bat baino gehiago erregistratuz gero, Eko modua desaktibatu egiten da automatikoki. Menu honetan, “sólo leer” aukera Eko modua aukeraren baliokidea da.

Aukera aldatzeko:




1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla menu nagusiko elementuak ikusteko.

2. Erabili nabigazio-teklak **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.

3. teklak erabilia, aukeratu **3.AHORRO ENERG** eta sakatu **OK** tekla.

4. teklak erabilia, aukeratu **2.MODO ECO** eta sakatu **OK** tekla. Telefonoak oinarriaren **PIN** kodea sartzeko eskatuko dizu.





5. Sartu oinarriaren PIN kodea (aurrez ezarritakoa **0000** da) eta sakatu **OK** tekla.

6.  teklekin hautatu **1.DESACTIVAR** edo **2.ACTIVAR** aukeren artean. Egungo aukeraketa  ikurraz markatuta agertzen da.
7. Sakatu **OK** laster-tekla aukera berria onartzeko, edo **ATRÁS**, ezer gorde gabe irteteko.
8. Sakatu  itxarote-modura itzultzeko.







## Aurrezenbakiak

Funtzio hau erabilgarria da digitu jakin batzuez hasten diren zenbaki guztiei aurrezenbaki bat jartzea nahi izanez gero. Zure telefonoak aurrezenbakientzako hiru memoria ditu. Haietan hainbat zenbaki gorde daitezke.








### Aurrezenbakiak gordetzea

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili  nabigazio-teklak **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.
3.  teklen bidez, aukeratu **4.PREFIJOS** eta sakatu **OK** tekla.
4.  teklen bidez, aukeratu memoria (1 ZENBAKIA, 2 ZENBAKIA EDO 3 ZENBAKIA). Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla, aukera onartzeko. Telefonoak zenbaki bat sartzeko eskatuko dizu. Zenbakizko teklatuarekin, sartu zenbakia (12 digitu gehienez) eta sakatu **OK**.
6. Ondoren, zenbaki horri dagokion izena sartzeko eskatuko dizu telefonoak (12 karaktere gehienez). Sakatu **OK** laster-tekla aukeraketa berresteko.
7. Sakatu  tekla itxarote-modura itzultzeko.

### Eskuz aurrezenbakiarekin markatzea

1. Itxarote-moduan, sakatu  tekla. Pantailan egungo aurrezenbakiak bistaratuko dira. Haiei lotutako izenak azalduko dira, aurretik gorde badituzu behintzat. Ez badituzu gorde, aurrezenbakien zenbakiak azalduko dira.
2.     teklen bidez, aukeratu zenbaki horietako bat, eta sakatu **OK** tekla. Orduan, pantailan **LLAMAR A** bistaratuko da lerro hasieran, eta zenbakiaren aurrezenbakia hurrengo lerroan.
3. Sartu deitu nahi duzun telefonoaren zenbakia. Zenbaki hori aurrezenbakiaren atzetik azalduko da, guztira bi digiturentzat.
4. Sakatu  tekla, zenbakia markatzeko.


### Agendatik aurrezenbakiarekin markatzea

1. Itxarote-moduan, sakatu  tekla. Pantailan egungo aurrezenbakiak bistaratuko dira. Haiei lotutako izenak azalduko dira, aurretik gorde badituzu behintzat. Ez badituzu gorde, aurrezenbakien zenbakiak azalduko dira.
2.  teklen bidez, aukeratu zenbaki horietako bat, eta sakatu **OK** tekla. Orduan, pantailan **LLAMAR A** bistaratuko da lerro hasieran, eta zenbakiaren aurrezenbakia hurrengo lerroan.
3. Sakatu  edo  teklak agendako erregistroetara sartzeko. Erregistroak alfabeto-ordenan azalduko dira.
4. Tekla alfanumerikoekin, sartu agendan aurkitu nahi duzun zenbakiaren lehen karakterea. Zuk sartutako karaktereaz hasten diren zenbakiak bilatu eta bistaratuko ditu telefonoak. Bestela,  edo  botoiak erabilia, telefonoaren erregistroetan bila hasiko da.
5. Zuk nahi zenuen erregistroa aurkitutakoan, sakatu **OK** laster-tekla. Aukeratutako telefono-zenbakia aurrezenbakiaren atzetik azalduko da.
6. Sakatu  tekla zenbakia markatzeko.

## Murrizketak

Dei-murrizketen bidez, dei jakin batzuk egitea eragozten da. Funtzio honetan zehaztutako zenbakiez hasten diren deiak ez dira markatuko. Gehienez digituko zenbakien murrizketak konfiguratu ditzakezu.

Zenbaki-murrizketak aktibatzeko edo desaktibatzeko:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili **↔** **↓** **↑** nabigazio-tekla **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.
3. **↓** **↑** teklen bidez, hautatu **5.RESTRICCIONES** aukera. Sakatu **OK** tekla. Pantailak oinarriaren PIN kodea eskatuko dizu, **BS PIN** mezuaren bidez.
4. Sartu **PIN** kodea (fabrikatik aurrez konfiguratua 0000 da), eta sakatu **OK** tekla.
5. Teklen bidez **↔** **↓** **↑** aukeratu murrizketa (**RESTRICCIÓN1**,..., **RESTRICCIÓN4**) eta sakatu **OK** tekla.
6. Sakatu murriztu nahi duzun zenbakia ( digitu gehienez). Ondoren, sakatu **OK** tekla aukeraketa onartzeko edo **ATRÁS** aukerarik gorde gabe irteteko.
7. Sakatu  itzarote-modura itzultzeko.

## Gaueko modua

Funtzio honen bidez, txirrin-hotsak ez zaitu gauez molestatuko. Gaueko modua aktibatua dagoenean, txirrinaren bolumena automatikoki aldatzen da aurrez ezarritako maila batetara (adibidez, minimora), programatu daitekeen denbora-tarte batean.

Gaueko modua aktibatzeko edo desaktibatzeko:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.
3. teklekin aukeratu **6.MODO NOCHE**. Sakatu **OK** tekla. Koadro barruan, egungo konfigurazioa azaltzen da.
4. teklen bidez, aukeratu **ACTIVADO** gaueko modua aktibatzeko edo **DESACTIVADO** hura desaktibatzeko.
5. **ACTIVADO** aukera hautatzen baduzu, pantailak kurtsorea bistaratuko du orduaren eremuan.
6. Sartu digituak 12/24 orduko formatuan, gaueko modua zer ordutan hasiko den adierazteko (adibidez 11:45 PM jartzeko, sartu 2345). Digituak ~markaren aurretik agertuko dira. Datuak sartzerakoan nahasi bazara, **ATRÁS** tekla erabil dezakezu.
7. Sartu digituak modu berean gaueko modua noiz bukatzen den adierazteko. Horiek ~ markaren atzetik agertuko dira.
8. Sakatu tekla. Kurtsorea **SONIDO** eremura joango da.
9. teklak erabilita, aukeratu gaueko moduko txirrinaren soinu-maila.
10. Sakatu **OK** tekla, aukera berresteko.
11. Sakatu itzarote-modura itzultzeko.

## R tekla

Tekla hau erabilgarria da zure telefono-konpainiak edo telefonoguneak eskaintzen dituen zerbitzu hauek erabiltzeko: “deiak desbideratzea”, “deia zain”, “erantzungailu-zerbitzua” eta abar. Zerbitzu horiek zure telefono-konpainiarekin kontratatu behar dituzu.

R teklaren (“flash”) eraginak irauten duen denbora konfiguratu daiteke: 80, 100, 120, 180, 250, 300, 500 edo 600 ms. Espainiarako, 100 ms da.






1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.
3. teklen bidez, hautatu **7.CONFIGURAR R.** aukera, eta sakatu **OK** tekla. Pantailak oinarriaren PIN kodea eskatuko dizu, **BS PIN** mezuaren bidez.
4. Sartu **PIN** kodea (fabrikatik aurrez konfiguratua 0000 da), eta sakatu **OK** tekla. Egungo konfigurazioan milisegundotan dago.
5. teklen bidez, aukeratu R teklarako nahi duzun denbora.
6. Sakatu **OK** tekla, aukeraketa onartzeko edo **ATRÁS**, aukerarik gorde gabe irteteko.
7. Sakatu itzarote-modura itzultzeko.


Konfigurazio hori aldatzen baduzu, baliteke zure telefono konpainiak eskaintako zerbitzu batzuk ezin erabili izatea.




## Markaketa

Sistema ezberdinekin bateragarria izateko, zure telefonoa pultsu bidez edo tonu bidez markatzeko programatu daiteke. Besterik adierazi ezean tonu bidez markatzeko (TONOS) konfiguraturuta egoten da. Markaketa modua aldatzeko jarraitu hurrengo urratsak:





1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili  nabigazio-teklak **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.
3.   teklen bidez, hautatu **8.MARCACIÓN** aukera. Sakatu **OK** tekla. Telefonoak oinarriaren PIN kodea eskatuko dizu, eta pantailan BS PIN mezua azalduko da.
4. Sartu **PIN** kodea (fabrikatik aurrez konfiguraturuta 0000 da), eta sakatu **OK** tekla. Egunko konfigurazioa azalduko da pantailan.
5.  teklen bidez, aukeratu **TONOS** edo **PULSOS**.
6. Sakatu **OK** tekla, aukeraketa onartzeko edo **ATRÁS**, aukerarik gorde gabe irteteko.
7. Sakatu  itzarote-modura itzultzeko.

 Datuak funtzioa: Telefonoa **PULSOS** moduan badago, haren lineak tonu bidezko markaketarik onartzen ez duelako, behin behinean **TONOS** modura alda dezakezu, zerbitzu automatiko jakin batzuetaz baliatu ahal izateko: erantzungailuak, arreta-zentroak, ahots-postontziak eta abar. Horretarako:

1. Deitu zerbitzu automatikoaren zenbakira, bestetan egin ohi duzun modura.
2. Konektatuta zaudela, sakatu  tekla eta eduki sakatuta pantailan T tekla azaldu arte. Zure telefonoa tonu bidezko markaketara (**TONOS**) konmutatuko da, eta konektatuta zauden zerbitzu automatikora sartu ahal izango zara.
3. Eskegitzen duzunean, telefonoa automatikoki itzultzen da pulsu bidezko markaketara (**PULSOS**).

## Sarbide-kodea

Telefonogune batzuek sarbide-kode bat (9 edo 0 adibidez) eskatzen dute kanpoko lineara sartzeko eta markatzera gonbidatzen duen tonua entzuteko. Bestalde, sarbide-kodea konfiguratutakoan, telefonoak automatikoki sartzen du sarbide-kodea (digitu bakarrekoa) eta etenaldi bat jasotako deien zerrendako telefono-zenbaki bat erabiltzen duzunean.

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili  nabigazio-tekla **4.CONFIGURACIÓN** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.
3.   teklen bidez, hautatu **9.CÓDIGO** aukera. Sakatu OK tekla.
4. Zenbakizko teklatura erabilita, sartu digitu bateko sarbide-kodea (0tik 9ra).
5. Sakatu OK tekla aukera berresteko.
7. Sakatu  itzarote-modura itzultzeko.



Ez programatu kodea (**CÓDIGO**), konektatuta zauden lineak ez badu behar.

## 15. KONFIGURAZIO AURRERATUA

### Infragorri bidezko urruneko kontrola

Haririk gabeko telefonoa infragorrien bidezko urruneko aginte unibertsal gisa erabil dezakezu zure TB, VCR, DVD eta beste aplikazio batzuetan (sei aplikazio guztira). Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus 17. kapitulua.

### Egutegia

Funtzio honen bidez, behingoan hamar jazoera gorde ditzakezu egutegian (bilerak, datak, gogorrazleak eta abar).

Funtzio hori erabiltzeko, ordua doitu behar da.

### Jazoera bat gehitu

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak 5.**AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK**, laster-tekla aukera onartzeko.
3. Sakatu teklak, eta hautatu 2.**CALENDARIO** aukera. Sakatu **OK** tekla. Pantailan, egungo hilabetea bistaratzen da, eta eguna bioleta koloreko hondoz nabarmendurik agertzen da.
4. Aukeratu data, nabigazio-teklak erabilita. teklen bidez, egutegiko egunetan horizontalean desplazatzen gara; teklen bidez, bertikalean desplazatzen gara, astetik atera.
5. Data egokia aukeratu ondoren, sakatu **OK**. Pantailan gertaera irekiko da orduan.
6. Gertaera bat gogorazteko, jarri alarmak jotzea nahi duzun ordua "\_\_ \_: \_\_ \_" formatuan, zenbakizko teklatura erabilita. Gainera, kurtsorea ezker-eskuin mugitu ahal izango duzu edo teklak erabilita.

7. Sakatu behin tekla ikonoa nabarmentzeko, eta edo teklen bidez, aukeratu jazoerarako txirrina.
8. Sakatu berriro tekla mezu-eremura sartzeko, eta idatzi testu bat (gehienez 30 karakterekoa).
9. Sakatu OK tekla konfigurazioa gordetzeko. Berriro bistaratuko da egutegia, eta data hondo berdez nabarmenduta egongo da.
10. Beste gertaera bat gehitzeko, errepikatu aurreko urratsak. Irteteko, sakatu tekla.

Ezarritako orduan, telefonoa soinua egiten hasiko da, eta pantailan alarma bistaratuko da. Alarma kentzeko sakatu OK laster-tekla.

### Jazoera bat ezabatzea

1. Sakatu **MFNÍJ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak 5.**AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK**, laster-tekla aukera onartzeko.
3. Sakatu teklak, eta hautatu 2.**CALENDARIO** aukera. Sakatu **OK** tekla. Pantailan egungo hilabetea bistaratzen da, eguna nabarmendurik duela.
4. Aukeratu data, nabigazio-teklak erabilita. teklen bidez, egutegiko egunetan horizontalean desplazatzen gara; teklen bidez, bertikalean desplazatzen gara astetik atera. Sakatu **OK** tekla.
5. Sakatu **OPCIÓN** laster-tekla.
6. Sakatu **OK** tekla, 1.**BORRAR** aukerara sartzeko. Telefonoak berresteko eskatuko dizu. Gertaera ezabatu egingo da, eta telefonoaren pantailan egutegia bistaratuko da berriro.
7. Sakatu itzarote-modura itzultzeko.

## Gertaera bat editatzea

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak 5.**AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK**, laster-tekla aukera onartzeko.
3. Sakatu teklak, eta hautatu 2.**CALENDARIO** aukera. Sakatu **OK** tekla. Pantailan egungo hilabetea bistaratzen da, eguna nabarmendurik duela.
4. teklak erabilia, bilatu editatu nahi duzun gertaeraren data, eta sakatu **OK** tekla.
5. Aldatu jazoera, eta sakatu **OPCIÓN** laster-tekla.
6. Sakatu teklak, 2.**OK** aukera nabarmentzeko, eta sakatu **OK** tekla.
7. Sakatu itzarote-modura itzultzeko.

## Alarma

Aukera honen bidez, independenteki jo dezaketen bi alarma ezar daitezke. Hauek dira moduak: behin, egunero, lanegunetan (astelehenetik ostiralera) edo asteburuetan (larunbatak eta igandeak).

## Aktibatzea edo desaktibatzea

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak 5.**AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK**, laster-tekla aukera onartzeko.
3. teklak erabilia, hautatu 3.**ALARMA** aukera. Sakatu **OK** tekla.
4. teklak erabilia, aukeratu **ALARMA 1** edo **ALARMA 2**. Ondoren, sakatu **OK** tekla.
5. teklak erabilia, aukeratu **ACTIVADO** alarma aktibatzeko, edo **DESACTIVADO** hura desaktibatzeko. Eskuineko ikurrak egungo aukera adierazten du. Sakatu **OK** tekla.
6. Alarma aktibatzen baduzu, orduaren programaziora pasatuko da. Zenbakizko teklatuaren bidez, konfiguratu ordua "oo:mm" formatuan.
7. Sakatu tekla ikonoa nabarmentzeko. edo teklen bidez, aukeratu alarmaren txirrin-mota.

8. Sakatu tekla hurrengo eremura igarotzeko edo teklen bidez, aukeratu alarmaren jotze-maiztasuna. **UNA VEZ, DIARIO, LUN-VIE** eta **SAB-DOM** aukera ditzakezu. Sakatu **OK** laster-tekla.
9. Sakatu tekla, itxarote-modura itzultzeko. Pantailan ikonoa bistaratuko da.
10. Alarmak jotzen duenean, hura itzaltzeko sakatu **OK** tekla.

## Ordu-eremua

Aukera honen bidez, munduko edozein bazterretako egungo ordua eta data ikus ditzakezu.

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak 5.**AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla aukera onartzeko.
3. teklen bidez, hautatu 4.**HUSO HORARIO** aukera. Sakatu **OK** tekla.
4. Teklen bidez aukeratu kokalekua. Ondoren, sakatu **OK** tekla. Ordu-eremua marra bertikal batekin bistaratuko da. Data, tokiko ordua eta aukeratutako herrialdea ere azalduko dira.
5. nabigazio-teklen bidez, zuk behar duzun ordu-eremua mugi dezakezu.
6. Hogeita hamar segundoan ez baduzu teklarik sakatzen, telefonoa itxaroteko modura itzuliko da automatikoki. Zain egon nahi ez baduzu, tekla sakatu irteteko.

urratsean, kokapena (herria, adibidez) ezin baduzu aurkitu, aukeratu zure eremutik gertuen dagoena.

Aurrez ez baduzu ordua konfiguratu, ezingo duzu ordu-eremua ikusi, eta pantailan **HORA SISTEMA NO CONFIGURADO** errore-mezua bistaratuko da.

## Kalkulagailua

Funtzio honen bidez, telefonoa kalkulagailu gisa erabil dezakezu. Eragiketa hauek egin ditzakezu: batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak.

Kalkulagailua erabiltzeko:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak 5.**AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK**, laster-tekla aukera onartzeko.
3. teklen bidez, aukeratu 5.**CALCULADORA** aukera. Sakatu **OK** tekla.
4. Zenbakizko teklatuaren bidez, sartu lehen zenbakia (eragigaia).
5. Eragiketa aukeratzeko, sakatu nabigazio-teklak eta aukeratu, hurrenez hurren, ikur aritmetiko hauek: +(gehi), -(ken), \*(bider), /(zati).
6. Zenbakizko teklatuaren bidez, sartu bigarren zenbakia (eragigaia).
7. Eraitza (=) lortzeko, sakatu ezkerreko **OK** laster-tekla.
8. Beste eragiketa bat egiteko, errepikatu 1etik 7rako urratsak.
9. Irteteko, sakatu tekla.




Akatsak ezabatzeko eta pantaila garbitzeko, sakatu **BORRAR** laster-tekla.


Zenbakia sartu aurretik, erabili # botoia ikurra positibotik (+) negatibora (-) aldatzeko, eta alderantziz. Eta erabili \* tekla puntu dezimalak sartzeko.


## Walkie-talkie

Funtzio hau erabiltzeko, haririk gabeko bi telefono behar dira. Funtzionamendu-modu horretan, bi telefono eramangarri horiek “walkie-talkie” (irradi mugikor pribatu) moduan komunika daitezke elkarrekin, linearik erabili gabe.

### Walkie-talkie modua aktibatzea

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili  nabigazio-teklak **5.AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK**, laster-tekla aukera onartzeko.
3. Sakatu  teklak eta aukeratu **6.WALKIE-TALKIE** aukera. Sakatu **OK** tekla. Telefonoak kanal-zenbakia sartzeko eskatuko dizu.
4. Sartu nahi duzun lau digituko kanal-zenbakia (adibidez 1000), eta sakatu **OK** laster-tekla. Konektatu nahi duzun telefono eramangarriaren zenbakia sartzeko eskatuko dizu telefonoak.
5. Sartu telefono horren zenbakia 1etik 9ra. Pantailan **WALKIETALKIE ESPERA** mezua bistaratuko da.
6. Ziurtatu beste telefono eramangarriak irradi-kanal bera eta telefono-zenbaki bera aktibatua dituela.
7. Deia egiteko, sakatu **CONNECT** (konexioa) tekla. Ondoren sakatu beste telefono eramangarriari dagokion zenbakia.
8. Konexioa ongi egin bada, solaskideak deiari erantzun diezairoke edozein tekla sakatuta, eta haren pantailan **CONNECTADO** testua azalduko da. Telefono eramangarria walkie-talkie gisa erabil dezakezu orduan.
9. **WALKIE-TALKIE ESPERA** modura itzultzeko, sakatu  tekla (solaskideak gauza bera egin dezake).

 Telefono eramangarria ezin da telefono gisa erabili walkie-talkie moduan baldin badago.

 5. urratsean sartutako zenbakiak ez du zerikusirik oinarriari esleitutako zenbakiarekin, eta walkie-talkie saio bakoitzean aldatu egin dezakegu.



## Walkie-talkie modua desaktibatzea

Itxarote-moduan, sakatu **SALIR** laster-tekla, eta zure telefonoa ohiko operazio-modura itzuliko da.

## Markaketa turboa

Markaketa turboaren bidez, 10 zenbaki ohikoenak laster batean marka ditzakezu, zenbakizko teklatuko 0tik 9ra bitarteko botoietako bat luze sakatuta.

## 0-9 teklei markaketa turborako zenbakiak esleitzea

Markatze turboaren zenbaki-zerrendara zenbaki berriak zuzenean sartzeaz gain, markatutako zenbakien zerrendatik, jasotako deien zerrendatik edo agendatik kopiatu daitezke. Horrela denbora asko aurreztuko duzu. Horretarako, jarraitu urrats hauek:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili **<>v^** nabigazio-teklak **5.AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK**, laster-tekla aukera onartzeko.
3. **v^** teklen bidez, hautatu **7.MARCAR TURBO** aukera. Sakatu **OK** tekla.
4. Sakatu behin eta berriro **<>v^** nabigazio-teklak **2.EDITAR** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** tekla. Horrela, markaketa turboaren edizio-menua bistaratuko da pantailan.
5. Orain, hainbat aukera izango dituzu:
  - Aukeratu markatutako zenbakien zerrendan lehendik zegoen sarreretako bat, jasotako deien zerrendatik edo agendatik. Kasu horretan, zoaz zuzenean 9. urratsera. Izena eta zenbakia eskuz sartu. Kasu horretan, zoaz hurrengo urratsera.
6. **NOMBRE** eremuan, idatzi markaketa turborako zenbaki berriaren izena. Ondoren sakatu **v** tekla **NÚMERO** eremura igarotzeko.
7. Idatzi telefono-zenbakia **NÚMERO** eremuan.
8. Sakatu **EDITAR** laster-tekla. Ondoren, **BUSCAR NÚMERO** aukera hautatzeko sakatu **OK**.

9. Sakatu behin eta berriz **<>v^** nabigazio-teklak, eta aukeratu zenbaki markatuen zerrenda, jasotako deien zerrenda edo agenda. Ondoren sakatu **OK** tekla.

10. Sakatu behin eta berriz **<>v^** nabigazio-teklak, erabil daitezkeen izen eta zenbakietan mugitzeko. Ondoren, sakatu **OK** tekla. Horrela, izena eta zenbakia markaketa turboaren pantailan kopiatuta gelditzen dira.


11. Sakatu behin eta berriz **v^** tekla, **TECLA TURBO** eremura joateko. Ondoren, erabili **teklak libre** dagoen zenbakietako bat (0tik 9ra) aukeratzeko.

12. Sakatu **OK** tekla, zenbakia markaketa turboaren zerrendan gordetzeko.

13. Sakatu labur tekla, itzarote-modura itzultzeko.

### Markaketa turborako zenbakiak editatzea edo ezabatzea

Markaketa turborako zenbakiak edita ditzakezu zenbaki horien zerrendan sartuta. Zerrendatik ere mugi ditzakezu, markaketa turborako posizio bat uzteko.

 Markaketa turborako zenbakien zerrendatik zenbaki bat mugitzen baduzu, eta zenbaki hori markatutako zenbakien zerrendatik, jasotako deien zerrendatik edo agendatik inportatu bada, zerrenda horiek bere horretan jarraituko dute. Markaketa turborako zerrendan, berriz, posizio bat libre geldituko da.

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.

2. Erabili **<>v^** nabigazio-teklak **5.AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK**, laster-tekla aukera onartzeko.

3. **v^** teklen bidez, hautatu **7.MARCAR TURBO** aukera. Sakatu **OK** tekla.

4. Hautatu **1.BUSCAR** aukera, eta sakatu **OK** tekla. Horrela, telefonoan jada programatuta dauden zenbakiei dagokien informazioa azalduko dizu pantailak (zenbakia 0tik 9ra eta, jarraian, dagokion zenbakia/izena).

5. Sakatu behin eta berriz **<>v^** nabigazio-teklak editatu beharreko markaketa turborako zenbakia aukeratzeko. Ondoren, sakatu **OK** tekla.

6. Sakatu **OPCIÓN** laster-tekla. Hiru aukera daude: **EDITAR**, **BORRAR** edo **BORRAR TODO**.

7. <> v ^ nabigazio-teklak erabili aukeraketa egiteko.

Sakatu OK tekla.

- Editar: markaketa turborako zenbakia editatzeko aukera ematen du.

- Borrar: hautatutako zenbakia ezabatzeko aukera ematen du

- Borrar todo: markatutako zenbakien zerrenda guztia ezabatzeko aukera ematen du (telefonoak berrespena eskatuko dizu, mezu baten bidez).

8. Sakatu labur  tekla, itzarote-modura itzultzeko.

## Fuzzy markaketa


Funtzio honen bidez, gehien erabiltzen diren zenbakien eskuzko markaketa azkartzen da. Funtzio hori aktibatua dagoenean, lehen digituak markatu ahala, telefonoak automatikoki osatzen ditu falta diren zenbakiak. Horretarako, markatutako azken zenbakien zerrendan, agendan edo jasotako deien zerrendan egon behar du zenbaki horrek.

### Fuzzy markaketa gaitzea/ezgaitzea


1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.

2. Erabili <> v ^ nabigazio-teklak 5.**AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu OK, laster-tekla aukera onartzeko.

3. v ^ teklen bidez, aukeratu 8.**MARCAR FUZZY** aukera. Sakatu OK tekla.

4. Sakatu behin eta berriz <> v ^ nabigazio-teklak, **ACTIVADO** edo **DESACTIVADO** aukerak hautatzeko (egungo doiketa  sinboloaz markatuta agertzen da).

5. Sakatu OK tekla aukera onartzeko.

6. Sakatu labur  tekla, itzarote-modura itzultzeko.

### Fuzzy markaketaren bidez dei bat egin

1. Ziurtatu Fuzzy markaketa aktibatua dagoela, eta telefonoa itzaroteko moduan dagoela.

2. Sartu, banan-banan, deitu nahi duzun telefonoaren lehen digituak. Agendako, jasotako deien zerrendako edo markatutako azken zenbakien zerrendako telefono-zenbaki batekin edo batzuekin bat baldin badator, telefonoak osatuko du zenbakia gainerako digituekin.

3. Proposatutako zenbakia zuk deitu nahi duzun telefono batekoa bada, zoaz hurrengo urratsera. Hala ez bada, jarraitu digituak sartzen zuk nahi duzun zenbaki hori azaldu arte.

4. Zenbakia zuzena bada, markatzeko, sakatu tekla. Ez bada zuzena, handik irteteko sakatu tekla.

Markatu nahi duzun telefono-zenbakiarekin aspaldian ez bazara komunikatu, eta zenbaki hori agendan gordeta ez badaukazu, telefonoak proposatutako zenbakiak ez dira harekin bat etorriko. Kasu horretan, sartu zenbakia eskuz, markatutako zenbakien zerrendan sar dadin. Hala, hurrengoan, fuzzy markaketa eraginkorra izango da zenbaki horrekin.

## Markatutako zenbakietara deitzeko modua

Funtzio honen bidez, azkarrago irits zaitezke markatutako azken zenbakien zerrendara, telefono mugikorrek egiten duten gisa.

Ondorioz, teklaren funtzioa aldatu egiten da itxaroteko moduan sakatzen denean:

- **DESACTIVADO** (lehenetsia) dagoenean: tekla sakatuta, telefonoak linea hartzen du. Linea-tonua entzutean, zenbakia eskuz markatu dezakezu.

- **ACTIVADO** dagoenean: tekla sakatuta, markatutako azken zenbakien zerrenda ikusten da pantailan.

## Markatutako zenbakietara deitu modua gaitzea/ezgaitzea

1. Sakatu **MFNÍ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.

2. Erabili nabigazio-teklak 5.**AVANZADO** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK**, laster-tekla aukera onartzeko.

3. teklen bidez, hautatu 9.**NUM MARCADOS** aukera. Sakatu **OK** tekla.




4. Sakatu behin eta berriz nabigazio-teklak, **ACTIVADO** edo **DESACTIVADO** aukerak hautatzeko (egungo doiketa sinboloaz markatuta agertzen da).

5. Sakatu **OK** tekla aukera onartzeko.

6. Sakatu labur tekla, itxarote-modura itzultzeko.

## Dei bat egitea markatutako zenbakien zerrendatik

Ziurta ezazu markatutako zenbakietara deitzeko modua aktibatua dagoela:

1. Itxarote-egoeran sakatu  tekla. Pantailan, markatutako zenbakien zerrenda azalduko da (telefonoak ez du linearik hartuko).
2. Sakatu behin eta berriz  nabigazio-teklak, zerrendako zenbaki batetik bestera mugitu ahal izateko.
3. Zuk nahi duzun zenbakia aurkitzen duzunean, aukeratu eta sakatu  tekla, markatzeko.

## 16. Sistema

Menu honek hainbat aukera eskaintzen ditu: telefonoaren oinarriaren eta aparatu eramangarriaren PINa aldatzea, oinarri edo eramangarri osagarriak erregistratzea, oinarria eta eramangarria fabrikako baloreetara berrabiatzea eta abar.

Oinarri berean erregistratutako gailu eramangarri bat baino gehiago badituzu eta menu hau erabiltzen ari bazara, inor ez izango da sartu zuk bukatu arte.

Oinarrian aparatu eramangarri gehiagori alta emanez gero, ekipoa ez da ekologikoa izango, du, eta erradiazio-nukleok DECT terminal estandar baten berdinak izango dira.

### Eramangarriaren eta oinarriaren PIN kodea aldatzea

Oinarriaren eta eramangarriaren PIN kodea beharrezkoak dira, zure telefonoa baimenik gabe inork erabil ez dezan. Fabrikatik konfiguratutako PIN kodea 0000 da. PIN kodea aldatzeko, jarraitu urrats hauek:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak, **6.SISTEMA** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla, aukera onartzeko.
3. teklen bidez, aukeratu **3.CAMBIAR PIN** aukera. Sakatu **OK** tekla. Aukeratu **1.PIN PORTATIL** edo **2.PIN BASE**, eta sakatu **OK** tekla, aukeraketa berresteko.
4. Aurreko aukeraketaren arabera, sartu eramangarriaren edo oinarriaren **PIN** kodea, eta sakatu **OK** aukeraketa berresteko.
5. Sartu **PIN** kode berria (lau digitu), eta sakatu **OK**.
6. Berresteko, sartu berriro **PIN** kode berria, eta sakatu **OK** botoia.
7. Irteteko, sakatu tekla.

**PIN** kode okerra sartzen baduzu, telefonoa itxaroteko modura itzuliko da, alerta-txistu bat eginez. Hala eta guztiz ere, pantailan ez da bistaratuko zuk sartutako zenbakia, sekretupean gordetzeko.

## Eramangarria edo oinarria berrabiaraztea

Eramangarria edo oinarria berrabiarazten badituzu, funtzio konfiguragarri batzuk fabrikako hasierako konfiguraziora itzuliko dira: sartzen eta irteten diren deien zerrendak, aukeratutako hizkuntza eta abar. Eramangarria berrabiarazi dezakezu oinarria berrabiarazi gabe, eta alderantziz. Funtzio hori kasu hauetan da erabilgarria:

- Eramangarria gaizki konfiguratu baduzu eta fabrikako hasierako konfiguraziora berrabiarazi nahi baduzu.
  - Telefonoak ez badu behar bezala funtzionatzen (ikur desegokiak, jokaera okerra, eta abar). Arazoa egokigailuan zarata egoteak sor lezake, edo barne-mikroprozesadorearen memoria aztoratu duen talka elektrostatis bategatik. Kasu horretan, berrabiarazteak arazoa konpondu dezake.

Berrabiarazteko:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-tekla, 6. **SISTEMA** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu OK laster-tekla, aukera onartzeko.
3. teklen bidez hautatu 2. **RESETEAR** aukera. Sakatu OK tekla.
4. Aukeratu 1. **RESET PORT** edo 2. **RESET BASE** eta sakatu OK tekla, aukeraketa berresteko.
5. Aurreko aukeraketaren arabera, sartu eramangarriaren edo oinarriaren PIN kodea, eta sakatu OK, aukeraketa berresteko eta berrabiarazteko.
6. Telefonoak berrespena eskatuko dizu. Sakatu OK, berresteko, edo **ATRÁS**, berrabiarazi gabe irteteko.
7. Irteteko, sakatu tekla.


Kontuz! Eramangarria berrabiarazitakoan, gordetako datu guztiak galtzen dira. Adibidez, izena, agendako zenbakiak eta abar.

Oinarria berrabiarazteak ez die eragiten han erregistratutako eramangarriei.

## Oinarria aukeratzea

Zure eramangarria gehienez **lau** oinarritan erregistratu daiteke. Funtzio hori eraginkorra da eramangarriaren estaldura handitzeko. Horretarako:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili **<>v^** nabigazio-teklak, **6.SISTEMA** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla, aukera onartzeko.
3. **v^** teklen bidez, hautatu **3.SELEC BASE** aukera, eta sakatu **OK** tekla.
4. **<>v^** teklekin, aukeratu libre dagoen oinarrietako bat (adibidez: **Base1** edo **Base 2**, eramangarria bi oinarritan erregistratuta baldin badago) edo **Mejor** (ikus beheko oharra).
5. Sakatu **OK** laster-tekla, aukera onartzeko, edo **ATRÁS** tekla, doiketa berrikeri gorde gabe irteteko.

 4.urratsean, libre dagoen oinarrikeri onena (hoberena) aukera dezakezu. Kasu horretan, eramangarriak automatikoki bilatuko du libre dagoen lehen oinarria.

## Eramangarri bat erregistratzea edo alta ematea

Zure oinarrian eramangarri erregistra ditzakezu, beste pertsona batzuekin linea bera partekatzeko. Hori egiteko, zenbaki bat esleitu behar diozu erregistratu behar duzun eramangarri berri bakoitzari. Segurtasun-arrazoiak direla eta, erregistro-prozesua oinarriaren PIN kodea ezagutzen duten pertsonak soilik egin dezakete. PIN kodeak baimen-kode gisa funtzionatzen du.

Besterik adierazi ezean, oinarria eta eramangarria fabrikatik erregistratuta datoz. Dakizun bezala, ekipoak dakarren aparatu eramangarria 1 zenbakiaz erregistratuta egoten da, eta pantailan HS(1) azaltzen da. Hala ez bada edo beste eramangarri bati alta eman nahi badiozu:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.



2. Erabili nabigazio-teklak, **6.SISTEMA** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu OK laster-tekla, aukera onartzeko.
3. teklen bidez, hautatu **4.DAR DE ALTA** aukera. Sakatu **OK** tekla.
4. Sartu eramangarriaren PIN kodea (0000, lehenespenez), eta sakatu OK tekla.
5. Eramangarriaren PIN kodea sartu eta gero, pantailak oinarriaren PIN kodea sartzeko eskatuko dizu (0000 aurrekonfiguratua). PIN kode horrek baimen-kode gisa funtzionatzen du. Sartu kodea, eta sakatu OK tekla.
6. teklak erabilia, aukeratu oinarriari dagokion zenbakia. Sakatu **OK** tekla, oinarria bilatzeko. Pantailan, **BUSCANDO** testua bistaratuko da.
7. Luze sakatu erregistratu nahi duzun oinarriaren behealdeko bilaketa-tekla.
8. Erregistroa ongi egin bada, eramangarriak berrespen-soinu bat egingo du, eta itzaroteko modura itzuliko da; orduan, ikonoa finko bistaratuko da. Orain, bilaketa-botoia aska dezakezu.

## Eramangarri bati baja ematea

Beharrezkoa izanez gero, oinarri batean erregistratutako eramangarri bati baja eman diezaiokezu. Horretarako, eman urrats hauek:

1. Sakatu **MENÚ** laster-tekla, menu nagusiko elementuak ikusteko.
2. Erabili nabigazio-teklak, **6.SISTEMA** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu OK laster-tekla, aukera onartzeko.
3. teklen bidez, hautatu **5.DAR DE BAJA** aukera. Sakatu **OK** tekla.
4. Sartu oinarriaren **PIN** kodea (0000 aurrekonfiguratua), eta sakatu **OK** tekla. Oinarrian erregistratuta dauden eramangarri guztiak bistaratuko dira pantailan.
5. Baja eman nahi duzun eramangarriaren zenbakiarekin bat datorren zenbakizko tekla sakatu. Ondoren, sakatu **OK** laster-tekla.
6. Erregistrotik kanporatu duzun eramangarriaren pantailan, **SIN REGISTRO** testua azalduko da.

## 17. Infragorri bidezko urruneko kontrola

Funtzio honen bidez, eramangarria infragorri bidezko urruneko aginte gisa erabil dezakezu. Izan ere, eramangarriak sei ekiporen funtzioak kontrola ditzake infragorri bidezko urruneko aginte bidez. **TB, audioa, bideoa (VCR), DVDa, Set top box-a** eta beste ekipo bat.

Urruneko aginte-funtzioa erabili aurretik, jatorrizko urruneko aginte-ekipoak zituen komandoekin programatu behar da eramangarria.

Urruneko aginte-funtzioa telefonoz hitz egiten ari zaren bitartean ere erabil dezakezu; baldintza horietan, ordea, ezin izango dituzu zure komandoak programatu.

Zure eramangarriarekin kontrolatu nahi duzun ekipoak itxarote-moduan (stand-by) egon behar du.

Ez baduzu gutxienez profil bat programatzen (TB, adibidez) ezin duzu urruneko agintearen modua erabili.

### Kode infragorriak (IG) programatzea


Eramangarriak profil bat du telebistarako: TB. Telebistarako profila hiru modutara programatu dezakezu:

- 17.1.a atalean azaltzen den bezala, jatorrizko urruneko aginteak erabilitako kode normalizatua sartuta.
- Eskuz, kode normalizatua bilatuta, 17.1.b atalean azaltzen den bezala.
- Komandoak jatorrizko urruneko agintetik transmitituta, 17.1.c atalean azaltzen den bezala.

Baina beste aplikazioetako bat programatzea nahi baduzu (Audioa, VCRa, DVDa, Set top box-a edo besteren bat) hirugarren aukera soilik erabil dezakezu.

### Kode normalizatua sartu (TB, telebistarako soilik)

Prozesu honen bidez, zure telebistaren jatorrizko urruneko aginteak erabilitako kode normalizatua sartuta programatu dezakezu eramangarria.

 17. .atalean telebista marka nagusiek infragorrientzat erabiltzen dituzten kode normalizatuak daude.

1. Ikusi, 17. atalean, zure telebista markari (Telefunken, adibidez) dagozkion kodeak. Apuntatu itzazu, behar dituzunean eskuz sartzeko prest izan ditzazun (Telefunken-ek, adibidez, 8 kode ditu).
2. Itxarote-egoeran sakatu **MENÚ** tekla.
3. nabigazio-teklen bidez, bilatu 5.**AVANZADO** aukera, eta ondoren, sakatu **OK** tekla.
4. Sakatu **OK** tekla, 1.**CONT. REMOTO** aukera hautatzeko.
5. Sakatu berriro **OK** tekla 1.**PROGRAMAR IR** aukera hautatzeko (infragorri bidez programatzeko modua). Orduan, eramangarrian programatu daitezkeen gailuen zerrenda azalduko zaizu.
6. nabigazio-teklen bidez, aukeratu telebistaren profila eta sakatu **OK** tekla.
7. Sakatu **OK** tekla 1.**CÓDIGO** aukera hautatzeko. Pantailan, **INTROD CÓDIGO** leihoaren barruan, aukeratutako azken gailuaren kodea azalduko da.
8. Kodeen taulan aurkitutako lehen kodea idatzi (adibidez, 0581 Telefunken-en, kasuan). Ondoren, sakatu erdiko **SMS** tekla telebistak eramangarriaren aginduak betetzen dituen ikusteko(adibidez telebista piztuta badago, erdiko SMS tekla sakatuta itzali egingo da), edo sakatu **OK** kodea, gordetzeko. Berreste-soinu bat entzungo duzu.
9. Sakatu **OK** tekla, irteteko eta itxarote-modura itzultzeko.
10. Egiatzatu zure telebistak eramangarriaren komandoei erantzuten diela, 17.3. atalean adierazitakoaren arabera. Ez badu funtzionatzen, errepikatu prozesua zure telebista-markari dagozkion kode guztiak banan-banan probatuta, funtzionatzen duen bat aurkitu arte. Telebistak kode horietako inorekin ez badu funtzionatzen, saia zaitetz 17.1.b atalean azaldutako moduan bilatzen kodea.

## Kodea eskuz bilatzea (TB, telebistarako soilik)

Eramangarria goiko prozesuari jarraituz programatzen saiatu bazara, eta, hala eta guztiz ere zure telebistak bere markari dagozkion kodeekin ez badu funtzionatzen, saiatu kodea eskuz bilatzen, prozesu hau jarraituta. Kode infragorri guztiak eskaneatzeko eta zure ekiporako egokiena zein den egiaztatzeko aukera emango dizu. Kode egokia aurkitzen duzunean, piztuta duzun telebista itzali egingo da.

Gogoratu prozesu hau telebisten kasuan soilik dela eraginkorra. Beste ekipo mota bat kontrolatu nahi baduzu, erabili 17.1.c atalean deskribatutako prozedura.

1. Egiaztatu ekipoa itxaroteko moduan dagoela.
2. Itxaroteko moduan, sakatu **MENÚ** tekla.
3. **◀▶▼▲** nabigazio teklen bidez, aukeratu **5.AVANZADO** menua, eta ondoren, sakatu **OK** tekla.
4. Sakatu **OK** tekla, **1.CONT REMOTO** aukera hautatzeko.
5. Sakatu berriro **OK** tekla **1.PROGRAMAR IR** aukeratzeko (infragorri bidez programatzeko modua) Eramangarrian programatu daitezkeen gailuen zerrenda (TB, audioa eta abar) azalduko du pantailak.
6. **◀▶▼▲** nabigazio-teklen bidez, aukeratu telebistaren profila eta sakatu **OK** tekla.
7. **◀▶▼▲** nabigazio-teklen bidez, hautatu **2.BUSCAR** aukera, eta ondoren, sakatu **OK** tekla. Aukeratutako azken kodea bistaratuko da pantailan (edo lehenetsitako --balioa). **SELEC CÓDIGO** eremuaren barruan azalduko da.
8. Jarri eramangarria telebistatik distantzia egokira, eta zuzendu telebistarantz infragorrien leihoa.
9. Nabigazio-teklen bidez, sakatu **▼▲** teklak, infragorrien kodeak eskuz aldatzeko. Egokia aukeratu bezain laster (adibidez **1331**), telebistak erantzun egingo du (itzalita badago, piztu egingo da).
10. Sakatu **OK** tekla zure kodea gordetzeko. Berrespen-soinu bat entzungo duzu.
11. Egiaztatu zure telebistak eramangarriaren komandoei erantzuten diela, 17.3 atalean adierazitakoaren arabera. Ongi ez badabil, errepikatu hurrengo kodeekin.

## Kodeak transmititzea (edozein ekipotarako)

Prozedura horrekin, kontrolatu nahi duzun ekipoaren jatorrizko urruneko aginteari dagozkion komandoak transmiti diezazkiokezu eramangarriari. Prozesu hau eraginkorra da kasu hauetan:

- Zure unitate eramangarrian **TB**ren profila aurreko bi prozesuak jarraituz programatzen saiatu bazara eta bietako inork ez badu funtzionatu.
- Eramangarria beste gailu-mota batzuekin programatu nahi baduzu, adibidez: **Audioa**, **VCRa**, **DVDa**, **Set top box-a** edo beste bat.

Kodeak transmititzeko, jarraitu urrats hauek:

1. Unitate eramangarria itxarote-moduan dagoela, sakatu **MENÚ** tekla.
2. **◀▶▼▲** nabigazio-teklen bidez, hautatu **5.AVANZADO** aukera, eta ondoren, sakatu **OK** tekla.
3. Sakatu berriro **OK** tekla, **1.CONT REMOTO** aukera hautatzeko.
4. Sakatu berriro **OK** tekla, **1.PROGRAMAR IR** aukeratzeko (infragorri bidez programatzeko modua). Eramangarrian programatu daitezkeen gailuen zerrenda (TB, audioa eta abar) azalduko du pantailak.
5. **◀▶▼▲** nabigazio-teklen bidez, aukeratu programatzea gustatuko litzaizukeen gailu-mota(DVDa adibidez). Ondoren, sakatu **OK** tekla.
6. Orain:
  - TB aukeratu baduzu, erabili **◀▶▼▲** nabigazio-tekla 3.**APRENDER** aukera hautatzeko. Ondoren, sakatu **OK** tekla, eta jarraitu hurrengo urratsa. Beste profilen bat aukeratu baduzu (Audioa, VCRa, DVDa eta abar), joan zuzenean hurrengo puntura.
7. **APRENDER** leihoa bistaratuko da, **PULSE TECLA** eremua hutsik duela.
8. Sakatu ekipoa kontrolatzeko urruneko agintearen komandoa erakutsi nahi diozun eramangarriaren tekla. Horretarako, kontuan hartu taula hau:

ERAMANGARRIAREN TEKLA	JATORRIZKO URRUNEKO KONTROLEKO TEKLA
	Piztu/itzali
	Audiorako, VCR-rako eta DVDrako: Gelditu (Stop) TB, Set top box-a eta gainerako gailuetarako: Programazio-funtziorako sarbidea (2. kasu horretan, ez da beharrezkoa programatzea)
	Mute aktibatu/desaktibatu
	Kanala gora
	Kanala behera
	Bolumena igo
	Bolumena jaitsi
SMS	Erreproduzitu (Play)(Audioa, VCRa eta DVDrako soilik)
1,2,...9,0 digituak	1, 2, ... 9, 10 kanalak 9, 10

9. Jarri eramangarria eta zure ekipoaren jatorrizko urruneko agintea gainazal lau eta egonkor batean. Ondoren, jarri parez pare infragorrien bi leihoak bi gailuen arteko komunikazioa errazteko. 2 cm baino gutxiagora jarri eta ez itzazu mugitu.



10. Sakatu **TECLA DEL CONTROL REMOTO ORIGINAL** segundo batez, gutxi gora-behera. Eramangarriak funtzioa behar bezala ikasi duen adieraziko dizu pantailan bistaratuko den mezu baten bidez: **OK! edo ERROREA!** (ikus oharra).
11. Errepikatu 9. eta 10. urratsak tekla bakoitzeko.
12. Komandoen ikasketa-saiotik irteteko, sakatu **ATRÁS** tekla.
13. Sakatu tekla itzaroteko modura itzultzeko.

! Prozesu horretan, ez mugitu eramangarria edo urruneko agintea. Egonkor egon behar dute.

! Urruneko aginte batzuek komandoen transmisio-prozesua errepikatu beharra izaten dute; beraz, 10. urratsean probatu botoia behin eta berriz sakatuta.

! 10. urratsean, urruneko agintea tekla baten baino gehiagoren funtzioak transmititzen ari denean (adibidez bolumena igo/jaitsi, kanala igo/jaitsi eta abar), beharrezkoa da, kasu batzuetan, tekla horiek une labur batez sakatzea ikasketa-prozesua gauzatzen ari den bitartean; bestela, eramangarriak ez ditu komando horiek behar bezala bidaliko gero.

! Ezin badituzu komando horiek urruneko agintetik eramangarrira behar bezala transmititu, mugitu horietako bat eskuinera edo ezkerrean, marrazkian agertzen den bezala.



## Kodeak ezabatzea

Zure gailuen profil bat edo guztiak ezaba ditzakezu, zure beharren arabera.

### Profil bat ezabatzea

1. Itxaroteko moduan, sakatu **MENÚ** tekla.
2. **↔** **↘** **↗** nabigazio-teklen bidez, hautatu 5.**AVANZADO** aukera, eta ondoren, sakatu **OK** tekla.
3. Sakatu berriro **OK** tekla, urruneko aginte-funtzioa aukeratzeko.
4. **↔** **↘** **↗** nabigazio-teklen bidez, hautatu 3.**BORRAR** aukera, eta ondoren, sakatu **OK** tekla.
5. Sakatu **↔** **↘** **↗** nabigazio-tekla, ezabatu nahi duzun profila bilatzeko (adibidez DVD). Ondoren, sakatu **OK** tekla.
6. Eramangarriaren pantailan **CONFIRMAR?** testua azalduko da.
7. Sakatu **OK** berresteko edo **ATRÁS** irteteko.
8. Sakatu **↶** tekla itxaroteko modura itzultzeko.

### Profil guztiak ezabatzea

1. Jarraitu aurreko ataleko 1etik 3rako urratsak.
2. urratsean, aukeratu 4.**BORRAR TODO**. Ondoren, sakatu **OK**.
3. Jarraitu aurreko atalean azalduetako 6etik 8rako urratsak.

## Urruneko agintearen funtzioak erabiltzea

Zure eramangarrian gutxienez profil bat programatzea lortu baduzu (adibidez TB), orain eramangarria erabil dezakezu gailu bat kontrolatzeko, urruneko aginte-modua erabilia (ikus oharra).

Urruneko aginte-moduan dagoen bitartean, eramangarria ez da automatikoki itxaroteko modura itzuliko. Bestalde, energia aurrezteko modua aktibatua badago (1.3. atala), pantailaren argiztapena pixkanaka indargetu egingo da, azken tekla sakatu eta 30 segundo igaro ondoren. Berriro teklaren bat sakatuz gero, pantaila guztiz argituko da.



Urruneko aginte-moduan zauden bitartean dei bat jasotzen baduzu, eramangarria telefono-modura itzuliko da automatikoki, jasotzen ari zaren deia erantzuteko aukera emanez. Deia amaitu ondoren, ordea, mugikorrak telefono-moduan egoten jarraituko du. Beraz, beharrezkoa izanez gero, urruneko aginte-modura itzuli nahi baduzu, eskuz egin behar duzu aukeraketa.

Urruneko agintea erabiltzeko:

1. Itxaroteko moduan, sakatu **REMOTO** tekla, urruneko aginte-funtzioa aktibatzeko. Gutxienez profil bat programatu baduzu (adibidez TB), pantailan funtzio anitzeko kontrolagailu infragorri birtual bat azalduko da, irudi honetakoa bezalakoa:
2. Aukeratu kontrolatu behar duzun gailua, eskuineko laster-tekla sakatuta.



Pantailaren goialdean, eskuinean, programatutako gailu guztiak azalduko dira.

- TB, gailuak azalduko dira.
- AUD, Audio-profilerako
- VCR, bideo-profilerako
- DVD, DVD profilerako
- STB, Set-Top Box profilerako
- ETC, beste gailu baten profilerako

3. Eramangarria behar bezala programaturik baldin badago, gailua taula honen arabera kontrola dezakezu:

ERAMANGARRIAREN TEKLA	JATORRIZKO URRUNEKO KONTROLAREN TEKLA
	E/A, gailua piztu edo itzali
	Stop, gelditu; Audioa, VCRa eta DVDrako soilik, programazio-funtziora sarbidea; TB, Set-top box-a eta gainerako gailuetarako.
REMOTO	SAL, telefono-modura irten
	Mute, mute aktibatu edo desaktibatu gailuan
	TB (adibidez), aukeratutako gailuaren profila
	kanala gora
	kanala behera
	+, bolumena igo
	-, bolumena jaitsi
SMS	Erreproduzitu (Play); soilik Audioa, VCRa eta DVDrako
1,2,...9,0 digituak	1, 2, ... 3, 9, 10 kanalak

- Profil bat bera ere ez baduzu programatu, **REMOTO** teklak ez du eramangarria urruneko aginte-moduan jarriko, baina programazio-modura eramango zaitu.
- Eramangarria urruneko aginte-moduan dagoela oinarrian jartzen baduzu, telefono-modura (itxaroteko egoeran) itzuliko da.

## 18. Datu teknikoak

- **Irratia**

Maiztasuna: 1.88tik 1.9GHz-era

- **Elikadura**

Oinarria: 230V ~ 50Hz, 100mA

Eramangarria: Petaka-bateria 2, V / 850 mAh (NiMh)

- **Sare-egokigailua**

AC/DC kanpo-transformadorea:

- Sarrera: 230 V ~ 50Hz, 100mA

-Irteera:

7V DC 300mA

7V DC 150mA

- **Funtzionatze-denbora:**

- Itxaroteko egoeran: 100 ordu (erabilpenaren arabera)

-Hitz egiten: 15 h.

- **Estaldura**

- 300 metrorainokoa toki irekietan

- 50 metrorainokoa eraikinetan

## 19. Ohiko galderak

### ZER EGIN ZALANTZAREN BAT IZANEZ GERO

#### ERAMANGARRIAK EZ DU FUNTZIONATZEN, EDO EZ DABIL BEHAR DEN BEZALA

- Deskonektatu oinarria sare elektrikotik.
- Kendu bateriak eramangarriari.
- Konektatu berriro oinarria sare elektrikora.
- Konektatu bateriak eramangarriari.

#### TELEFONOAK EZ DU FUNTZIONATZEN

- Egiaztatu egokigailua behar bezala konektatuta dagoela.
- Egiaztatu lineako kablea behar bezala konektatuta dagoela.
- Egiaztatu bateriak konektatuta eta kargatuta daudela.

#### ERAMANGARRIA EZ DABIL

- Deskonektatu bateriak eta konektatu berriro.
- Utzi eramangarria oinarrian, eta egiaztatu pantailako bateriaren adierazlea mugitu egiten dela.
- Kargatu dituzu bateriak 15 bat orduz. Egiaztatu bateriaren egoera eramangarriko ikonoak adierazten duen karga-maila ikusita.

#### OINARRIA ETA ERAMANGARRIA EZ DIRA UZTARTZEN

- Erregistratu berriro eramangarria oinarrian (ikus 16.4 atala).

#### EZ DA ENTZUTEN MARKATZEKO TONUA

- Egiaztatu lineako kablea behar bezala konektatuta dagoela.

#### TXIRRINA LEHENAGO ENTZUTEN DA TELEFONO FINKOAN

- Normala da. Oinarriak irrati bidez transmititzen du seinalea, eta motelagoa da.

## TELEFONOAREN PANTAILAN EZ DA BISTARATZEN DEI-EGILEAREN ZENBAKIA

- Eskatu diozu zerbitzua zure telefono-konpainiari?
- Telefonogune pribatu batera konektatuta zaude? Horietako askotan ez da zenbakia bistaritzen.

## HITZ EGITEN ARI ZAREN BITARTEAN ZARATA ENTZUTEN DUZU

- Joan beste toki batera, gerturatu oinarria.
- Urrundu oinarria gailu elektrikoetatik (telebistak, ordenagailuak...) irrati-interferentziak galarazteko. Berrikusi instalazioa.

## HITZ EGITEN ARI ZARELA, OHAR-TONU BAT ENTZUTEN DA

- Bateriak agortzen ari dira. Kargatu berriro.
- Eramangarria estaldurarik gabeko gune batean sartzen ari da; hurbildu oinarria.

## EZIN DUT SMS-RIK BIDALI, EZTA JASO ERE

- Zerbitzua aktibatu duzu? Jarri harremanetan zure telefono-konpainiarekin, eta eskatu zerbitzua aktibatzeke, edo bete 11.3 ataleko jarraibideak.
- Ondo programatu duzu Mezu Laburren Zerbitzariaren Zenbakia? Itzuli 11.1 atalean zehaztutako jarraibideetara.
- Egokiro programatu duzu terminalaren zenbakia? Bete itzazu 11.2 ataleko jarraibideak.

## ADSL BANDA ZABALA IZANIK ERE, DEIAK EZ DITU IDENTIFIKATZEN, EDO SOINU-KALITATE BAXUA DU

- Ziurtatu ADSL iragazki bat duzula etxean erabiltzen den linearen hartune bakoitzari zuzenean konektatua.
- Egiaztatu modema eta telefonoa iragazkiaren zirrikitu egokian konektatuta daudela (bakoitzarentzat bat).
- Iragazkia akastuna izan daiteke. Ordezka ezazu eta saiatu berriro.

## TELEFONOAREN INFRAGORRI BIDEZKO URRUNEKO AGINTEA EZ DABIL ONDO NIRE TELEBISTAN, BIDEOAN, DVD-AN, ETAB.

- Sartu kode normalizatua, jatorrizko urruneko agintea erabiliz, 17.1.a ataldean azaltzen den moduan.
- Aurreko puntukoak balio ez badu, sartu kodea eskuz, 17.1.b atalean azaltzen den moduan (telebistetarako bakarrik).
- Aurreko puntukoak ere balio ez badu, transmititu komandoak jatorrizko urruneko agintetik, 17.1.c. atalean azaltzen den moduan.

Jarraitu zorrotz urruneko agintearen funtzioari buruz aurreko ataletan zehaztutako oharrei eta argibideei. Hala ere, bateragarritasun-arazoak egon litezke ekipoaren urruneko agintearen eta telefonoaren beraren infragorri bidezko urruneko agintearen artean.